

Jagon bilduma

Argitaratutako lanak / Títulos publicados:

1. *Bertsolari txapelketa 1982*. 1983
2. ZZ.EE./AA.VV.
Iparragirre. 1987
3. *Euskararen sustatzea*.
Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2018). 2018
4. MIQUEL GROS I LLADÓS
Recuperación del Euskera en Navarra. 2007
5. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen Batzordea
Hizkuntza-zuzenbidea. Testu-bilduma euskaraz.
Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2018
6. EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN KONFEDERAZIOA/
EUSKALTZAINDIA
Zenbait orientabide erregistroen trataeraz. 2008
7. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Testu-antolatzaileak. Erabilera estrategikoa. 2008
8. MIQUEL GROS I LLADÓS
El euskera en la Comunidad Autónoma Vasca (2009). 2009
9. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian. Enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord. 2010
10. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
Ikastola mugimendua. Dabilen herria. 2010
11. MIKEL ZALBIDE
Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. 2010
12. JÚJE ETXEBARNE
Gramatika emendakinak. Zuberoako euskaraz.
Bigarren edizioa: zuzendua eta emendatua. 2015
13. EUSKAL HERRIKO IKASTOLAK. EUSKALTZAINDIA
El movimiento de las Ikastolas. Un pueblo en marcha.
El modelo Ikastola 1960-2010. 2011
14. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Corpus Batzordea
Hitz-ordena. Erabilera estrategikoa. 2011
15. ERRAMUN BAXOK ETA JEAN-BAPTISTE COYOS
Gazteak, aisialdia eta euskara Ipar Euskal Herrian. Les jeunes, les loisirs et la langue basque en Pays Basque Nord. 2012.
16. PAULA KASARES
Euskaldun hazi Nafarroan. Euskararen belaunez belauneko jarraipena eta bizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan. 2013
17. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Euskal Elkargoaren sortzea eta euskararen geroa.
Euskaltzaindiaren XXI. Jagon jardunaldia. 2017
18. EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Araba, euskaraz bidea egiten. 2018

Hizkuntzaren erabileran eragina duten gizartearen alde guztiak biltzen ditu JAGON Sailak, bai eta hiztunek bizi dituzten kultura arauak, itzaropenak eta testuingurua ere. Euskaltzaindiaren Jagon Saileko *JAGON bildumak* euskararen inguruko hainbat ikerketa eta saiakera hartzen ditu, hizkuntzaren erabilera praktikoa aztertu, eta euskara sustatzeko eta babesteko.



EUSKALTZAINDIA - JAGON SAILA
Sustapen batzordea

Araba, Euskaraz bidea egiten

Mendeetan atzeraka joan ondoren, nabarmen hobera egin dute euskararen joerak zein egoerak Araban, azken hamarkadetan. 2017ko XXII. Jagon Jardunaldian aldaketa horren dimentsioa eta ezaugarriak izan ziren hizpide, Arabako ordezkariak herritar, profesional eta instituzional zabal baten eskutik.

Argitalpen honetan jaso da, lau saiotan banatuta, euskalgintza sozial eta instituzional horren ahotsa.

Araba, Euskaraz bidea egiten



18



EUSKALTZAINDIA





ARABA, EUSKARAZ BIDEA EGITEN
EUSKALTZAINDIAREN XXII. JAGON JARDUNALDIA

2017ko azaroaren 17an

Prestatzailea: Iñaki Martínez de Luna



ARABA, EUSKARAZ BIDEA EGITEN

EUSKALTZAINDIAREN
XXII. JAGON JARDUNALDIA



EUSKALTZAINDIA
BILBO / BILBAO
2019

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca Azkue de la Real Academia de la Lengua Vasca:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

www.euskaltzaindia.eus/azkue

Hizkuntza-orrasketa: Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA)

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Diseinua: Ikeder

Azaleko irudia: Iñaki Mendizabal Elordi

Aurreinprimatzea: Composiciones RALI, S.A.

Inprimatzea: G.Z. Printek, S.A.L.

ISBN: 978-84-949787-5-3

Lege-gordailua: BI-347-2019

AURKIBIDEA

Sarrera (Sagrario Aleman)	7
Aurkezpena (Iñaki Martínez de Luna)	9
I. EUSKARAREN EGOERA ETA BILAKAERA ARABAN.....	13
Euskara Araban (1991-2016). Inkesta soziolinguistikoen datuak oinarri hartuta	
<i>Agurtzane Ortíz de Landaluze</i>	15
Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia	
<i>Asier Etxenike</i>	33
Hizkuntzen kale-erabilera, Araban	
<i>Olatz Altuna</i>	41
2. ERAKUNDEEN EUSKARA TEKNIKARIEN LAN ILDO BERRITZAILEENAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK	57
Lan-ildo berritzaileenak eta aurrera begirako aukerak	
<i>Jokin Larrañaga</i>	59
Hiritik, euskaraz bidea egiten	
<i>Alex Vadillo</i>	63
Arabako Errioxan, kalean bizi-bizi	
<i>Leire Sueskun</i>	67
Gorbeialdeko Kuadrillako euskara zerbitzua: gure tamainakook, zertan gara berritzaile?	
<i>Manex Agirre</i>	71

3. HAINBAT ERAGILEREN AHALEGINAK ARABAKO EUSKALDUNAK AKTIBATZEKO	75
Hizkuntza portaeretan eragitea helburu: 2016an Agurainen «75 ordu euskaraz» eta 2018an Lautadan «II egun euskaraz»	
<i>Asier Lafuente Ruiz de Sabando</i>	77
GEU Elkarte	
<i>Maialen Agirre</i>	79
Gasteizko Kafe Antzokia — Oihaneder Euskararen Etxea <i>Kultura nora, euskara hara</i>	
<i>Iñaki Lazkano</i>	83
Euskara Trebiñun Gutxisolo elkartearen ikuspegitik	
<i>Pilar Ansotegi</i>	89
Arabako HEA (Helduen Euskalduntze Alfabetatze): gurutze-bidetik bidegurutzera?	
<i>Jose Miguel Reguero</i>	93
Araban, euskara lanabes	
<i>Rober Gutierrez</i>	97
4. EUSKARAZKO HEDABIDEEN GARRANTZIA	103
Konplizitatea, konpromisoa, laguntza	
<i>Alberto Barandiaran</i>	105
Aurrera begirako aukerak	
<i>Aritz Martínez de Luna</i>	109

SARRERA

Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren helburuetako bat euskararen erabilera sustatzea eta indartzea da, eta lan hori, bereziki, Jagon Saileko Sustapen batzordearen bidez egiten du.

Sustapen batzordeak, besteak beste, urtero Jagon jardunaldia antolatzen du hizkuntzaren normalizazioan ematen diren urratsak aztertzeko eta erabileraren inguruan gogoeta egiteko. Gehienetan, euskalgintzan eragile diren beste talde batzuk edota instituzioak hartzen ditu bidelagun jardunaldi horiek prestatzean.

Araba euskaraz bidea egiten izenburupean, 2017an, Gasteizen egin zena XXII. jardunaldia izan zen. Ez zen, ordea, Sustapen batzordeak Gasteizen egin zuen lehen aldia; aurretik ere, 2011n, bertan antolatu zuen *Arabatik Arabara jardunaldia*, lurralde honetan euskarak izan zuen suspertze handia aztertzeko asmoz.

Lau ataletan banaturik, artikuluko akademiko gisa, argitaratu dira hemen XXII. jardunaldietan hizpide izan ziren gaiak, mintzaldietan esan zirenak luze eta zabal idatziak. Araban euskararen erabilera zertan den eta geroa hobea izan dadin egiten ari diren bidea zein den ere erakusten dute lan hauek. 2011ko txostenekin alderatzeko parada ere eskaintzen dute.

Txostenak aurkeztu dituztenei, hitzaldietan parte hartu zutenei, eta, nola ez, argitalpen hau prestatzen aritu den Iñaki Martínez de Lunari, Euskaltzaindiaren izean, esker mila.

Sagrario Aleman
Euskaltzaindiaren Sustapen batzordeko burua



AURKEZPENA

Mendeetan atzeraka joan ondoren, nabarmen hobera egin dute euskararen joerak zein egoerak Araban, azken hamarkadetan. 2017ko XXII. Jagon Jardundian aldaketa horren dimentsioa eta ezaugarriak izan ziren hizpide, Arabako ordezkariak herritar, profesional eta instituzional zabal baten eskutik. Argitalpen honetan jaso da, lau saiotan banatuta, euskalgintza sozial eta instituzional horren ahotsa.

Arabako egoeraren eta bilakaeraren irakurketa, datuen argira izenburuko saioak jarraitu zion agur instituzionalari. Horretan, ikerlerro soziolinguistiko nagusietatik tira eginez, gure lurraldean azken urteotan egin den bidearen emaitzak aurkeztu ziren. Saioaren pisua Agurtzane Ortiz de Landaluzek (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako teknikaria), Asier Etxeniketik (Azतिकerrek zuzendaria) eta Olatz Altunak (Soziolinguistika Klusterra. Kale Neurketako zuzendaria) hartu zuten beren gain. Horien hitzetan, euskarazko gaitasunean edo ezagutzan aurrerapauso handia egin da azken 25 urteotan, eta, zailtasunak zailtasun, erabilerak ere aurrera egin du. Euskararekiko jarreraren bilakaera ere hizpide izan zen, eta, hizkuntza ezberdinen balio soziala ulertzerakoan aldeak ere badirela onartuz, bizipen eta ikuspegi ezberdinen gaitetik euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak gailendu dira arabarren artean. Aurrera begira jarritz, oraindik bide luzea dago egiteko, baina hartutako norabidea egokia omen da. Adibide argigarria: hizkuntzen biziraupenerako hartu beharreko neurrien artetik UNESCO-k lehenesten duen familia bidezko transmisioak nabarmen egin du gora Araban, belaunaldi gazteenen bulkadatik bereziki. Horren lekuko garbia kaleko erabileran aurkitzen da, non haurren presentziak helduek euskaraz gehiago egin dezaten eragiten duen; hots, belaunaldien arteko transmisioari gizartearen ematen zaion garrantziaren isla garbia da. Egoera oraindik apala izanagatik, etorkizun itxaropentsua, nonbait.

Bigarren saioa *Erakundeetako euskara teknikarien egungo lan-ildo berritzaileenak eta aurrera begirako aukerak* izenburukoa zen, eta zenbait herri-erakundeetako ordezkariak teknikoek hartu zuten hitza. Honako hizlari hauek, hain zuzen: Jokin Larrañagak (Arabako Foru Aldundiko Euskara Zerbitzuko burua), Alex Vadillok (Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua), Leire Sueskunek (Errioxako Kuadrillako Euskara

teknikaria) eta Manex Agirrek (Gorbeialdeko Kuadrillako Euskara teknikaria). Aditu horiek, euskalgintza instituzionalaren jardun profesionaletik jasotako eskarmentuan oinarrituz, ikuspegi berri bat eman zuten beren eginkizunaz, garai bateko euskara-zerbitzuak eta gaur egungoak ez baitira inolaz ere berdinak; Administrazioaren menpeko hizkuntza-zerbitzuek beren burua erabat berritu dute. Teknikariak inoiz baino prestatuago daude, eta euskara-zerbitzu bati esanahi berriak, aterabide berriak, estrategia berritzaileak eransteko gero eta gaitasun handiagoa dute. Gauzak horrela, hizlari horien soslaia estrategikoa da, beren eginkizuna erakunde ofizialen eta herri-eragileen arteko zubi-lana egitean datzalako, neurri handian. Horren bidetik, eragile mota guztien arteko antolamendu, koordinazio eta planifikazio mailak gero eta handiagoak dira. Plangintza mota berri baterako gako ugari azaldu zen saioan zehar, besteak beste lehentasunezko xede-taldea den gazte jendearen aukera paregabea edo lankidetzan oinarritu behar duen jarduteko modu berritzailearen premia.

Zenbait zailtasun eta mugaren berri ere eman zen, adibidez, Arabako herriek eta herri-administrazioiko erakundeek duten dimentsioarena. Horrek markatzen omen du lan egiteko modua zein asmoen edukiak, txarrerako, baina baita onerako ere. Onuren arteko bat gertutasunarena da: zerbitzuetako arduradunak eskuragarriak dira lekuan lekuko eragileentzat, eta harreman zuzenak dituzte horiekin. Aliatuak bilatu eta aurkitzeko erraztasunak dakartza horrek. Dimentsio txikiari lotuta betiere, EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) eta ESEP (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana) bezalako plan orokorretatik eskaintzen diren eskemek neurri bateraino bakarrik balio dute. Ezinbestekoa zaie horien irakurketa egokituak egitea, lekuan lekuko beharrak eta erronkak ahalik eta egokien identifikatuz, eta hori guztia dimentsio egokiagoko ekintza planetara bihurtzen ahalegintzea. Bestalde, administrazio publikoaren antolamenduaren arabera, euskara zerbitzua kultura sailaren barruan kokatu izan da tradizionalki, eta horrek zaildu egiten du ezinbestekoa den zeharkakotasuna baliatzea.

*Hainbat eragileren abaleginak Arabako euskaldunak aktibatze*ko izan zen hirugarren saioaren izena, euskalgintza sozialeko bost ordezkari hauen ekarpenak jasoz: Asier Lafuente (Agurainen «75 Ordu Euskaraz» ekimeneko kidea), Maddalen Agirre (GEU elkarteko teknikaria), Iñaki Lazkano (Oihaneder Euskararen Etxeko teknikaria eta Lazarraga Kultur Elkarteko kidea), Pilar Ansotegi (Trobiñu enklabeako Gutxisolo elkarteko kidea) eta Josemi Reguero (Gasteizko IKAKo arduraduna). Hizlariak beren kontakizunari ekin zioten amets eta ilusioz betetako asmoak egia bihur daitezzen, solaskide horietako baten hitzek azaltzen duten bezala: «egunen batean euskararen lurraldeetan gure hizkuntzak Arabako euskaldunengan bere funtzio guztiak aise eta gogotsu garatuko dituela amesteko». Ilusioa ezinbesteko abiapuntua da, baina lan eskergarik gabe ez zuten partaideek gauza handirik lortuko. Eta ahalegin horietan mugak, zailtasunak, oztopoak eta abarrak daudela behin eta berriz entzun izan genuen. Kontakizun latzenetako bat administratiboki Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoan kokatuta dagoen Trobiñu enklabearena izan zen, non ohiko bizpahiru bider halakoak izaten diren: hasteko, aitortza ofizial txikienik eza (euskara EZ da hizkuntza ofiziala!), eta, jarraitzeko, beste euskal lurraldeetako eragileen ahanztura mingarria sarritan pairatu beharra. Nolabaiteko *salbuespen egoera* da Trobiñukoa. Zailtasunak zailtasun, miresgarria bezain txalogarria da denbora laburrean

herri-elkarte horiek urratu duten bidea, Trebiñun ez ezik Arabako beste hiri zein herrietan ere. Horren ondorioz, estrategiak, plangintzak, programak eta ekimenak ugariak baino ugariagoak dira nonahi, sortu berriak zein berritutakoak. Horren lekuko, arrakastatsu eta segida luzekoa izango den ekimen mota berri baten ale pare bat: 2016an, Agurainen «75 Ordu Euskaraz», eta, 2017an, «Baietz 42!» Zuiako euskaldunak aktibatzekeo ekimena. Dударik gabe, eragile horien guztien ekarpenekin urrats berri eta funtsezko bat ari da egiten Araban, euskararen normalizazioa lehenbailehen errealitatea izan dadin.

Egitarraren azken hitzordua *Euskarazko hedabideen garrantzia, Araban. Egoera eta aurrera begirako aukerak* izenekoa zen, beste lau lagunen ekarpenez osatua: Alberto Barandiaran (HEKIMENeko zuzendaria), Aritz Martínez de Luna (*ALEA*ko koordinatzailea), Izar Mendiguren (Aiaraldea hedabideko zuzendaria) eta Jon Sanchez (Hala Bedi Bi-ko kazetaria). Euskaraz informatzeko bokazioarekin jaio diren hedabideen baldintza zailak gogorarazi zizkiguten parte-hartzaileek, behin baino gehiagotan. Baliabideen eskasia gogoraraziz, hauxe zioen hizlari batek: «[geure burua] malabarista moduan ikusten dugula onartzen dugu inongo lotsarik gabe. Eguneroko jardunean, lantaldeko edozein kidek edozer gauza egiteko gaitasuna erakutsi beharra dauka...». Sektoreko norbanakoen ahalegin eta konpromisoari esker betetzen da baliabideen aldetik dagoen zulo erraldoia.

Bestalde, eskaera aldetik Araban dauden mugak sobera ezagunak dira, eta, hori gutxi balitz, begi bistakoa da ere sektoreak, oro har, pairatzen duen krisialdia. Aro digitala da uneko erronka. Hobeto esanda, erronka eta aukera, hizlarietako batek esan duen moduan. Erronka digitalari heltzea da Araban, edo gainerako lurralde guztietan, nolabaiteko bigarren aukera bat euskarazko hedabideentzat. Baina, aro berriari ongi heltzeko baldintzetako bat informazio egokiaz hornitzea da, eta horretan ere badago hutsunea.

Irtenbide orokorren bila nor bere aldetik ibiltzea okerreko bidea litzatekeela aipatu zen, bide horretatik jotzeak elkarren kontra jokatzea lekarkeelako. Hortaz, aurreko arloetako ordezkari gehientsuenak bezala, euskarazko hedabideen arteko estrategia partekatua aldarrikatu zen, betiere erakunde publikoen aldetik tamaina egokiko babesa ezinbestekoa dela ahaztu gabe. Hala ere, ahaleginak ahalegin eta arlo honetako hizlari guztien ekarpenak baliotsuak izan arren, hemen horietako bi baino ez dugu jasotzerik izan. Sentitzen dugu!

Esandakoaz gain, saio bakoitzaren bukaera aldera entzuleek ere aukera izan zuten, hizlariak esandakotik tira eginez, beren zalantzak eta ikuspuntuak plazaratzeko. Lau saioen gidaritzan, entzuleriaren galderak eta ekarpenak barne, hurrengo lagun hauen eskutik etorri zen, hurrenez hurren: Iñaki Martínez de Luna, Roberto González de Viñaspre, Ane Pedruzo eta Itsaso Estarrona.

Jardunaldiak pitututako interesaz eta egindako ekarpenaz ez dago zalantzarik, baina hutsune bat antzeman daiteke diseinuan: euskara lan-munduan txerta dadin egiten ari diren ahaleginen lekukotza, hain zuzen. Horretaz jabetuta, Bai Euskarari elkarteko zuzendaria den Rober Gutiérrezrek idatzizko ekarpena egiteko prestasuna erakutsi zuen, eta guk bere eskuzabaltasunari heldu, eta horrela egin du. Horren testuak *Lanabes-Araban, Euskara Lanean* egitasmoaren berri ematen du, ekimen horren helburua zehatz-mehatz azalduz: «arlotan sozioekonomikoan euskararen ezagutza, erabilera eta presentzia Araban areagotzea».

Azken apunte bat: hizlari ugari gogorarazi zuen *lankidetzak*, aldarrikapen filosofiko-teorikotik harago, estrategia oren muinean izan behar duela aurrerantzean. Eskutik hartuta joan behar dute/dugu eragile guztiok, euskararen komunitate trinko eta osasuntsua ehunduko bada, euskararen lurralde orotan eta, bereziki, Araban.

Iñaki Martínez de Luna
Euskaltzaindiko Sustapen batzordeko kidea eta soziolinguista

I. EUSKARAREN EGOERA ETA BILAKAERA ARABAN



EUSKARA ARABAN (1991-2016). INKESTA SOZIOLINGUISTIKOEN DATUAK OINARRI HARTUTA

Agurtzane Ortiz de Landaluze
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza
Politikarako Sailburuordetzako teknikaria

SARRERA

Sei Inkesta Soziolinguistiko egin dira orain arte Euskal Herri osoan. Lehena 1991n egin zen eta 2016an azkena. Bost urterik behin egiten da.

820 inkesta egin dira 2016an Araban.

Sei Inkesta Soziolinguistikoetako datuak oinarri harturik, eta azken inkestako datuetatik abiatuta, euskarak Araban azken 25 urteotan izan duen bilakaeraren berri emango da.

Inkesta Soziolinguistikoak lau ikerketa-eremu jasotzen ditu: euskara gaitasuna, euskararen transmisioa, euskararen erabilera hainbat esparrutan (etxean, lagunartean, lanean eta eremu formalean) eta euskararen sustapenari buruzko jarrera.

«*Araba, oi Araba! zu ote zare aitaren zazpigarren alaba . . .*» abesten zuen Gorka Knörr kantari arabarrak. Horrela sentitzen ginen arabar euskaldun asko lehen inkesta egin zen garaian, hau da, azken-azkenak euskaldunen rankingean, eta hala zen 1991ko datuei erreparatuz gero. Gauzak asko aldatu dira, ordea, 25 urtean. Horrela, azken datuen arabera, *bosgarren alaba* gara oraingo euskaldunen ehunekoak kontuan hartuz (%19,2), *zazpigarren alaba* izateari utzi diogu (%7 ziren euskaldunak 1991n).

Zailtasunak zailtasun, erabileran ere aurrera egin dugu. Horrela, ia hutsaren hurrengoa zen 1991n euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenen ehunekoak (%0,5). 2016an, aldiz, %5,6 da. Euskararen erabilerarik handiena, gainera, gazteenek dute (%14,9). Oso zenbaki apalak beste lurralde batzuekin konparatuz, baina nondik abiatu ginen aintzat hartzea komeni zaigulakoan nago.

Era berean, euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrerak bilakaera positiboa izan du, 1991n baino 8 puntu handiagoa baita aldeko jarrera 2016an. Biztanleriaren erdiak baino gehiagok du aldeko jarrera gaur egun (%53,4).

Dena dela, oraindik bide luzea dago egiteko, urte asko behar baitira galdutako hizkuntza berreskuratzeko.

Lehen hizkuntza euskara dutenen ehunekoak oso apalak dira oraindik. Ehunekoak ez dira asko aldatu 25 urteotan. %3,8 dira euskara soilik jaso dutenak etxean (1991n bezala) eta %3,2 euskara eta erdara jaso dutenak. Dena dela, adinaren arabera aztertuz gero, datuak positiboagoak dira, 16-24 urte bitartekoen artean, %7,8 eta

%9,5 baitira, hurrenez hurren. Belaunaldiak behar dira horri buelta emateko. Gogoan izan behar da, Aramaion eta Legution izan ezik, gainerako herri eta eskualdeetan belaunez belauneko transmisioa eten egin zela duela mende batzuk leku batzuetan eta joan den mendean beste batzuetan.


I. EUSKARA GAITASUNA

Euskara gaitasunaren arabera, hiru hiztun mota ditugu:

- Euskaldunak: euskara ondo edo nahiko ondo hitz egiten dakite.
- Euskaldun hartzaileak: euskara zertxobait edo nahiko ondo ulertzen dute eta zertxobait hitz egiten dakite.
- Erdaldunak: ez dute euskaraz ezer ulertzen ezta hitz egiten ere.

2016an egindako VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Araban bizi den 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %19,2 euskalduna da, %18,4 euskaldun hartzailea eta %62,4 erdalduna.


Euskara gaitasuna. Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaerari dagokionez, gaur egun 199In baino 37.000 euskaldun gehiago daude Araban. 12,2 puntuko hazkundea izan dute euskaldunek ehunekoetan (%7 versus %19,2).

Euskaldunen bilakaera. Araba, 1991-2016




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

Euskaldun hartzaileek ere hazkunde handia izan dute 25 urte hauetan, ia II puntukoa (%7,5 versus %18,4).

Erdaldunek, aldiz, 23,1 puntuko jaitsiera izan dute (%85,5 ziren 1991n eta %62,4 dira 2016an).

Euskara-gaitasunaren bilakaera. Araba, 1991-2016 (%)




Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

Erdaldunen beherakada eta euskaldunen hazkundera are azpimarragarriagoa da kontuan hartzen baditugu azken urteotan gure gizarteak bizi izan dituen aldaketa soziodemografikoak. Batetik, Arabako gizartea gero eta zaharragoa da. Jaiotze-tasa gero eta txikiagoa da; hortaz, gazteen multzoak, euskaldun gehien biltzen dituen multzoa izanik, gero eta pisu txikiagoa du gizarte osoarekiko.

Gasteizen %17,9 dira euskaldunak, %18,4 euskaldun hartzailak eta %63,8 erdaldunak. Arabako udalerrri gehienak euskaldunagoak dira Gasteiz baino, batez ere, Gorbeialdeko, Aiaraldeko eta Arabako Lautadako kuadrillak osatzen dituzten udalerrriak, baina Gasteizek Araban duen pisu demografiko handiagatik, eragin txikia dute lurraldearen ehunekoan.

Kontuan hartu behar da 2016an Arabako biztanleriaren %75 Gasteizen bizi dela, eta 1991n ere gauza bera gertatzen zen, antzekoa zen ehunekoa (%75,7).

Euskara gaitasuna. Gasteiz, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Sexuari dagokionez, emakumezkoen artean %20,4 dira arabar euskaldunak eta gizonezkoen artean, berriz, %18. Ikusten denez, euskaldunen ehunekoa handiagoa da emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino, 2,4 puntukoa hain zuzen ere.

Arabako euskaldunen adinari erreparatuz gero, ikus daiteke euskaldunen ehunekorik handiena 16-24 eta 25-34 urte bitartekoaren artean dagoela. Hala ere, euskaldunen hazkundera 50 urtetik beherako adin talde guztietan gertatu da.

Euskaldunen bilakaera adinaren arabera. Araba. 1991-2016 (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

Gaitasun erlatiboa: euskaldunen erraztasuna euskaraz egiteko


Euskaldunen gaitasun erlatiboa aztertuko da orain, hau da, euskaraz eta erdaraz (gaztelaniaz gehienetan) hitz egiteko duten erraztasuna.

Aurrerantzean erdara hitza erabiliko da euskara ez den beste edozein hizkuntza adierazteko.

Honela sailkatzen dira euskaldunak gaitasun erlatiboaren arabera:

- Euskal elebidunak: erraztasun handiagoa dute euskaraz hitz egiteko erdaraz hitz egiteko baino.
- Elebidun orekatuak: bi hizkuntzetan erraztasun bera dute. Izan ere, euskaldun hauek adierazten dute euskaraz eta erdaraz, bietan, berdín hitz egiteko erraztasuna dutela.
- Erdal elebidunak: erraztasun handiagoa dute erdaraz hitz egiteko euskaraz hitz egiteko baino.

Euskaldunen erraztasunaren bilakaera. Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

2016an Araban 16 urte edo gehiagoko euskaldunen %6,7k euskal elebidunak da. Elebidun orekatuak %22,6 dira eta erdal elebidunak %70,8 dira.

Arabako euskaldunen erraztasuna ez da askorik aldatu 1991tik hona. Duela 25 urte euskal elebidunen ehunekoa (%5,9 versus %6,7) eta elebidun orekatuen ehunekoa zerbait txikiagoa zen (%20,3 versus %22,6) eta erdal elebidunen ehunekoa, ostera, handiagoa (%73,7 versus %70,8).

2. HIZKUNTZAREN TRANSMISIOA


Lehen hizkuntza

Lehen hizkuntzari buruz ari garenean, umeak hiru urte bete arte gurasoengandik edo umearekin bizi diren senitartekoengandik jasotako hizkuntzari edo hizkuntzei buruz dihardugu.

VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Arabako 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren %3,8k euskara soilik jaso du etxean, %3,2k euskara eta erdara jaso ditu etxean, eta %93k erdara soilik jaso du etxean. Erdara diogunean, gaztelaniari buruz ari gara nagusiki, baina ez da ahaztu behar gero eta gehiagoren lehen hizkuntza arabiera, errumaniera, portugesa eta abar direla.

Duela 25 urte, Arabako biztanleriaren ehuneko berak jaso zuen euskara soilik etxean (%3,8). Etxean euskara eta erdara batera, aldiz, ehuneko txikiagoak jaso zuen, gaur egun baino (%0,7). Azkenik, erdara soilik jaso zutenen ehunekoa handiagoa zen (%95,5).

Lehen hizkuntzaren bilakaera. Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Adinari dagokionez, lehen hizkuntza erdara dutenak nagusi dira Arabako adin talde guztietan, baina bada alderik gazteenen, hau da, 16-24 eta 25-34 urte bitarteko, eta beste adin taldeen artean.

Gaur egun, 16-24 urte bitarteko gazteek dute euskara soilik jaso dutenen ehunekoik altuena (%7,8). Gauza bera gertatzen da euskara eta erdara jaso dutenen ehunekoari dagokionez, gazteenen artean dago alderik handiena.

Lehen hizkuntza euskara dutenen bilakaera adinaren arabera. Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera


Arabako 16 urte edo gehiagoko euskaldunak etxean jaso duten hizkuntzaren arabera, hau da, lehen hizkuntzaren arabera, nolakoak diren aztertuko da orain.

Honako hauek dira euskaldunak lehen hizkuntzaren arabera:

- Euskaldun zaharrak: euskara soilik jaso dute gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- Jatorrizko elebidunak: euskara eta erdara jaso dituzte gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik, hiru urte bete arte.
- Euskaldun berriak: ez dute euskararik jaso etxean gurasoengandik edo etxean bizi diren senitartekoengandik. Etxetik kanpo ikasi dute euskara, eskolan edo euskaltegian.

1991n euskaldun gehienak euskaldun zaharrak ziren (%51,9), nahiz eta euskaldun berriak ere hamarretik lau baino gehiago izan (%42,8). 2016an, aldiz, euskaldun berriak dira nagusi (%71). Era berean, jatorrizko elebidunek pisu handiagoa hartu dute (%5,4 ziren 1991n eta %11,6 dira 2016an. Azkenik, euskaldun zaharren ehunekoak asko jaitsi da (%51,9 ziren 1991n eta %17,4 dira 2016an).


Euskaldunen bilakaera lehen hizkuntzaren arabera. Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

Adin talde guztietan euskaldun berriak dira nagusi, 65 urte edo gehiagokoen artean izan ezik. Euskaldun berrien ehunekorik handiena 25-34 urte bitartekoek dute (%77,7). Euskaldun zaharren ehunekorik handiena 65 urte edo gehiagokoen dute (%64) eta jatorrizko elebidunen ehunekorik handiena, ostera, 16-24 urte bitartekoek (%15,7).

Euskaldunak lehen hizkuntzaren eta adinaren arabera. Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa


Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa nolakoa den jakiteko inkestatu guztiei galdetu zaie zein hizkuntza jaso duten etxean, euren gurasoen hizkuntza-gaitasunaren arabera.

Gurasoak biak euskaldunak izanik, seme-alaben %67,1ek euskara soilik jaso du etxean Araban, %21,7ek euskara eta erdara eta %11,2k ez du euskararik jaso.

Gurasoetako bat baino ez izanik euskalduna, %74,8k erdara soilik transmititu du eta %25,2k euskara eta gaztelania.

Guraso biak euskaldunak izanik, euskararen transmisioa handiagoa da adinean behera egin ahala.


**Transmisioa guraso biak euskaldunak direnean, adinaren arabera.
Araba, 2016 (%)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Gurasoetako batek euskaraz ez dakienean, desberdintasun handiak daude euskararen transmisioan adinaren arabera. Adinean behera egin ahala, euskararen transmisioa gero eta handiagoa da.

**Transmisioa gurasoetako bat bakarrik euskalduna denean adinaren arabera.
Araba, 2016 (%)**



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

3. EUSKARAREN ERABILERA

Euskarak gizartean oro har duen erabileraz jabetzeko, 2001ean indize bat eratu zen. Indize horri euskararen erabileraren tipologia deitzen zaio.


Honako hiru erabilera-eremu hauek hartzen dira kontuan indizea eratzeko:

- Etxea
- Lagunak
- Eremu formala: dendak, bankuak eta osasun eta udal zerbitzuak.

2016an Araban, 16 urte edo gehiagoko biztanleen %14,5ak euskara erabiltzen du neurri batean ala bestean:

- a) %5,6k euskararen erabilera trinkoa egiten du, hau da, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du eguneroko jardunean.
- b) Aldi berean, %8,9k euskara erabiltzen du, baina erdara baino gutxiago.


Euskararen erabileraren tipologia. Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Gainerako guztiak (%85,5) erdara erabiltzen dute beti edo ia beti. Kontuan hartu behar da, hala ere, azken hauen artean badela multzo txiki bat (%7,2) oso gutxitan bada ere euskara ere erabiltzen duena.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera. Araba, 1991-2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak 5,1 puntu egin du gora Araban (%0,5 versus %5,6).

Oro har euskarak erabilera-eremu guztietan egin du gora: etxean, lagunekin eta eremu formalean. Azken 25 urteotan gorakadarik handiena eremu formalean gertatu da, bereziki lankideekin eta udal zerbitzuetan.

2016an, Arabako biztanleen %11,6k euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen du lankideekin eta %10,7k udal zerbitzuetan (1991n, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen zutenak bi eremu horietan %3,8 eta %0,5 ziren, hurrenez hurren).

Eremu hurbil eta formalean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Araba, 2016 (%)




Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Eremu formaletik eta kanpo, aipatzekoa da etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak %6 direla, 1991n baino 4,4 puntu gehiago.

Etxeko kideen artean honako hau da euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa: bikotekidearekin %3,9 (1991n %1,4), seme-alabekin %8,5 (1991n %2,9), neba-arrebekin %6 (1991n %2,3), aitarekin %5 (1991n %0,7) eta amarekin %5,2 (1991n %1).

Igoerarik handiena seme-alabekin, aitarekin eta amarekin gertatu da: 5,6 puntu 4,3 eta 4,2 puntu, hurrenez hurren.


Etxean euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak. Araba, 2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoa, 2016.

Euskararen erabilera adinaren arabera aztertuz gero, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen ehunekoa gero eta handiagoa da adinean behera egin ahala.

Euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera adinaren arabera. Araba. 1991-2016 (%)



Iturria: Inkesta Soziolinguistikoak.

4. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEARI BURUZKO JARRERA

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarrera ezagutzeko, euskara sustatzearen alde edo kontra erakutsi duten lau iritziren arabeko tipologia eratu da.


Honako hauek dira tipologia osatzeko aintzat hartu diren iritziak:

- Administrazioan sartzeko euskara jakitea beharrezkoa da.
- Hobe da jendeak ingelesa ikastea euskara ikastea baino (ados ez daudenak dira euskara sustatzearen aldekoak).
- Ezinbestekoa da haur guztiek euskara ikastea.
- Irrati/telebistek programa gehiago behar lukete euskaraz.

2016ko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Arabako 16 urte edo gehiagoko biztanleen %53,4 euskararen erabilera sustatzearen alde dago, %32,7 ez alde ez aurka, eta %13,9 aurka.

Euskara sustatzearen alde daudenen ehunekoak 8 puntuko igoera izan du 25 urteotan (%45,4 versus %53,4). Ez dago alde handirik, ostera, ez alde ez aurka agertzen direnen arteko ehunekoan (%33,4 versus %32,7); baina bai, aurka daudenen artean, 7,2 puntuko jaitsiera izan baitu (%21,1 versus %13,9).

Euskararen erabilera sustatzeari buruzko jarreraren bilakaera.
Araba, 1991-2016 (%)



Iturria: VI. Inkesta Soziolinguistikoak.



ARABARREN EUSKARA EZAGUTZA, ERABILERA ETA IRITZIA

Asier Etxenike
AZTIKEReko zuzendaria

I. EZAGUTZA ZABALDU

Xabier Euzkitze: «Orain dela pare bat aste izan naiz han (Arabako Errioxako Lantziegon) pilota partidak ematen, eta halako batean neskatxa bat ikusi nuen, hiru bat urtekoa-edo, pilota batekin jolasean. Hurbildu nintzaion eta erdaraz hitz egin zidan; pentsatu nuen: 'Neska honek jakin behar dik ba euskaraz!'. Eta esan nion: 'Nik badakit euskaraz, e!'. Begiratu zidan eta esan zidan: 'A bai? Eske zaharra zara'. Alegia, han alderantziz da, han buelta eman dio egoerak, zaharrek ez dakite; gazteek, berriz, badakite eta erabili egiten dute. Eta bai, eremu horiek han modu miresgarrian berreskuratzen ari dira, eta, niretzat, sekulako poza da, eta uste dut bide horretan jarraitu beharra dagoela eta haiek eman diguten eredia benetan aparta dela»¹.


Euskitzek Lantziegon eduki zuen pentsamendu hori Araba osora zabaldu daiteke. Azken inkesta soziolinguistikoaren arabera Araban erdaldun elebakarrak nagusi dira. Hamarretik sei dira elebakarrak, bi elebidun hartzaileak eta beste bi elebidunak, borobilduta. Baina, gazteenen datuei erreparatzen diegunean, errealitatea iraultzen da. Egun, haur hezkuntzako matrikula datuak hartuta, hamarretik sei daude D eremuan eta ia beste lauak B eremuan. 2015ean Aztikerren Arabako Foru Aldundiarentzat egin genuen inkestaren arabera, D eredutik pasa direnak ia denak euskaldundu dira (%94,6) eta B eremuan daudenen artean hirutik bi (%64,8). Etorkizunean, zalantzarik gabe arabar elebidunak gehiengo izateko bidean dira.

Baina, noiz izango da etorkizun hori? Zenbat urte pasa beharko dira soilik umeen euskalduntzean jartzen badugu indar guztia? Eta zein euskara maila dute euskaldun hauek? Are gehiago, euskaraz eta gaztelaniaz, bietan egiteko gai dira maila bertsuan?

Lehen galderei erantzuten saiatuz (noiz izango da etorkizun hori?), egungo Arabako haur hezkuntzako matrikulazio datuak hartuta, hemendik 15 urtera, derrigorrezko hezkuntza amaituko dutenen artean oraindik hamarretik lau elebakarrak izango dira edo zailtasun handiak izango dituzte euskaraz egiteko.

¹ <https://goiena.eus/debagoiena/1482264952922-xabier-euzkitze-bertsolaritzak-nazionala-izan-behar-badu-ideologia-orotarikoa-ere-beharko-du> (2016-12-26).

Matrikulazio datuak — Araba. Haur Hezkuntzako Ikasleak 2011-2016




Iturria: Hezkuntza ordezkaritza.

Horretaz gain, helduen datuei erreparatzen badiegu, zaila da epe motzera gertatuko dena pentsatzea. Helduen artean euskalduntzean emandako bilakaera positiboa da (zaharrenak kenduta), baina bilakaera apalegia delakoan nago. Gainera, batetik, helduen pisu demografikoa gazteenarekin alderatuta oso handia da. Adin piramidea erabat desitxuratuta dago nagusien alde. Bestetik, mundu globalizatu honetan, migrazioek garrantzia handia izan dute eta izaten jarraituko dute. Gurean, migrazio mota ezberdinak izan dira azken hamarkadetan, erreferentzia kultural eta ezaugarri sozial ezberdinetakoak, baina hizkuntzari dagokionez, iritsi diren ia guztiak (guztiak ez esatearren), ez dute euskara ezagutzen, are gehiago, iritsi arte askotan euskara existitzen denik ere ez dakite. Migrante hauetatik gehienak gazte-helduak dira, beraz, ez dira derrigorrezko hezkuntza sistematik pasatzen. Eta pasatzen diren gazte migrante gehienak, badirudi A ereduan pilatzen dituztela. Zentzu horretan, oraindik ere helduen euskalduntzeak Araban garrantzia handia du: kuantitatiboki, euskaldun eta erdaldun elebakarren arteko proportzioak aldatzeko, eta, kualitatiboki, heldu horiek arabar gizartean okupatzen edo betetzen dituzten erreferentziazko funtzio sozialengatik.

Orain arte nolakoa izan da helduen euskalduntzea Araban? 2015eko inkestako datu batzuk: orain arte haiek euskalduntzeko modu nagusia euskaltegiak izan dira (lautik hiru), eta euskara ikasten emandako batez besteko denbora 3 urte eta lau hilabetekoa da, baina gehiengoak (%43,7) ikasturte bat edo bi eman ditu ikasten. Denbora tarte horretan, euskalduntzearen lehen maila (BI edo lehenengo profila) izan da laurden baten kasuan eskuratutakoa eta beste laurden batena 3. maila (CI edo EGA). Beraz, euskaltegiek denbora tarte laburra izaten dute eta hizkuntza profilen eskakizunek eragina dute heldu hauen euskara ikasteko motibazioetan eta portaeretan.

Hizkuntza ereduak eta euskara gaitasuna



Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztiker.


2. ERABILERA (ETA KONTSUMOA) SUSTATU

Gazteenen datuak kontuan hartuta, zailtasunak zailtasun eta epeak epe, euskalduntzea bermatua dagoela esan dut. Baina zer euskalduntze mota? Zein euskara maila dute? D ereduan ikasi duten arabarren artean herenera ez da iristen euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdina edo euskaraz erraztasun gehiago izatera. Alderantziz esanda, bi heren euskaldundu bai, baina gaztelaniaz dute erraztasun gehiago. B ereduan %15 dira elebidun orekatuak. Beraz, orain arte gazteak euskalduntzeko bide nagusia, eta gehienetan bakarra, hezkuntza sistemako hizkuntza ereduena izan da; euskalduntzeko bai, baina euskara erabilera-hizkuntza izateko ez du balio izan. Zerbait gehiago behar da.

Erraztasuna eta erabilera loturik doazen heinean, kontsumo eta portaera mota ezberdinen inguruko datu batzuk emango ditut, erabileraren sustapenerako pistak eman nahian: zehazki, hedabideen kontsumoa, irakurzaletasuna, gazteen aisialdi antolatuetan hizkuntza-ohiturak eta orokorrean lehen hitza zein hizkuntzan izan ohi den.


Elebidunek, hedabideen erabilera ezberdina dute arabar guztiekin alderatuta. Telebista eta irrati gutxiago ikusi eta entzuten dute, eta Internet eta online sare sozialen erabilera nabarmen altuagoa dute. Are gehiago, elebidunen eguneroko erabilera eremu nagusia Interneten ematen da (%87,2), telebistaren (%77,0) eta irratiaren (%53,6) gainetik. Beste ezaugarrien artean, hau azaltzen duen aldagai nagusietako bat, elebidun eta elebakarren arteko batez besteko adinaren aldea da, elebidunak nabarmen gazteagoak baitira, eta gazteek orokorrean, elebidunak izan edo ez, bestelako kontsumo portaerak dituzte. Elebidunek, neurtutako lau esparruen artean, irrati da gutxien erabiltzen dutena, baina euskaraz gehien entzuten dutena (irratia

Hizkuntza ereduak eta gaitasun erlatiboa



Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztiker.

Irakurzaletasuna (liburu kopurua, azken 12 hilabeteak)



Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztiker.


entzuten dutenen %52,2k entzuten dute euskaraz gaztelaniaz bezainbeste edo gehiago). Telebista eta online sare sozialak erabiltzen dituztenen artean %25 inguru-koa da portzentaje hori eta Interneten kasuan %13,8ra jaisten da.

Gazte (eta ez hain gazte) hauentzat, irratiaz hitz egiten denean erreferentzia nagusia Euskadi Gaztea dela jakinda, galdera hauek ditugu buruan: irradi-ereduak eragina izan dezake? Uhinez gain, hainbat ekitalditan izaten duten presentzia fisikoak laguntzen die gazteen arteko erreferentzia izaten? Maketak, kontzertuak, festa herrikoiak, Behobia-Donostia... Irratiaz gain, telebista, online sare sozialak eta Interneteko datuak ikusita, harreman sare fisikoen garrantzia, edukien produkzio gaitasuna eta horien bidez erreferentziak sortzeko gaitasuna aipatuko nituzke gako modura.

Irakurzaletasuna ez dago modan. Arabarrek batez beste urtean 4,9 liburu irakurtzen dituzte. %41,2k ez dute libururik irakurtzen urte osoan. Elebidunek ohitura gehiago dute liburuak irakurtzeko (6,7 liburu urtean) elebatarrek baino (4,2 liburu), baina euskaraz ia bat ere ez da irakurtzen (0,9 liburu batez beste).

Aisiaren eremuan hiru eremu neurtzen saiatu ginen: eskolaz kanpoko jarduerak, udalekuak eta aisialdiko bestelako eskaintzak (ludotekak, xtraklub, eskulanak, arte adierazpena, Gauekoak...). Ume eta gazteak gehiago joaten dira eskolaz kanpoko edota aisialdiko eskaintzara udalekuetara baino. Aldiz, udalekuetan egiten dute nabarmen gehiago euskaraz. Alde horiek ulertzen laguntzeko daturik ez genuen bildu. Beraz, hipotesiak edo galderak besterik ez ditugu: eskaintza bat eta besteak haien ibilbidean eduki duten bilakaeraren ondorio izan daiteke? Hau da, udalekuen sorreratik euskara erdigunean edo kontuan gehiago izatearen ondorioa izan daiteke?

Elebidunen hautematea eta hizkuntza portaera




Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztiker.

Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainek eragina dute. Elkarren ondoan jartzten ditugunean elebidunen pertzepzioak eta portaerak hori ondorioztatzen dugu. Elebidunen arabera, dendari edo saltzaileak dira, auzokide eta administrazioekin alderatuta, gunerik erdaldunena. Aldiz, haiei egiten diete gehiago euskaraz. Azaldu dezadan hau. Administrazioan da euskaraz gehien egiten duten lekua (%23,5), baina haien pertzepzioen arabera %49,5ek uste dute erdiek baino gehiagok dakitela euskaraz administrazioan. 26 puntuko aldea. Alde hori, auzokideez galdetzen genuenean, 4,6 puntukoa zen. Aldiz, saltzaile edo dendarien kasuan, haien hautemateen gainetik dago euskaraz egitea (5,1 puntu). Hau da, elebidun batzuen artean badagoela euskaraz egiteko jarrera bat, nahiz eta ez den espero euskaraz erantzutea.

Administrazioari dagokionez, pertzepzio horien arabera, esan dut, gunerik euskaldunena da eta lehen hitza euskaraz gehien erabiltzen den eremua, baina jauzia handia da. Hori azaltzeko gako nagusia «hizkuntza teknikoan», espezifikoa edo formalean aritzeko elebidunen zailtasunak edo ohitura falta izan daitezke.

Hautemateez ari garela, hurrengo datuak argi erakusten du gure portaerek hautemate batzuk sortzen dituela eta alderantziz, ditugun hautemateek askotan gure portaerak baldintzatzen ditu. Elebakarren ia erdiak (%49,4) uste du auzotarren artean inork, edo ia inork, ez dakiela euskaraz. Elebidunen hautemate hori askoz apalagoa da, %19 zehazki.

Hautematea: inork, edo ia inork, ez daki euskaraz



Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztiker.


Beraz, euskaraz aktibo izateak eragina du gure inguruaz dugun pertzepzioan. Elebidun ez-aktibo bat elebidun aktibo batekin alderatuta, lehenak bere ingurua erdaldunagoa dela pentsatuko du eta horrek bere aktibotasuna apalduko du.

3. JARREREN INGURUKO AIPAMEN BI

Bukatzeko, politika linguistikoak garatzeko orduan zabalduak dauden jarrerak oso kontuan hartu behar dira. Beraz, horien inguruko bi aipamenekin amaituko dut.

Euskara gaztelaniarekin berdintasunean egoteko nahia nagusi da arabarren artean. Gaztelania euskararen gainetik egon dadin nahiago dutenen portzentajea minoritarioa da. Multzoz nagusia erdaldun elebazarren artean aurkitzen da eta %12,9 dira. Beraz, euskara gutxienez gaztelaniaren pare egotearen aldeko jarrerak ideologiak eta identitateak gainditzen ditu, hau da, hegemonikoa, transbertsala da pentsamendu hori.

Etorkizunean zein hizkuntzatan egitea nahi, gaitasunaren arabera




Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztiker.

Jarrera horrek testuinguru edo giro orokor bat sortzen du. 2015ean neurtu genituen hainbat baieztapenen artean, aldekatasun nabarmenena eta hiru hiztun profilen arabera alderik ez zutenak bi esaldi ziren: euskaldun eta erdaldunen arteko errespetua bultzatu behar dela zioena bata, euskaraz ez dakitenek ere euskararen normalizazioa bultzatu behar dela luketela baieztatzen zuena bestea.

Gainontzeko baieztapenek aldeko eta, batzuetan, kontrako iritzia sortzen zituzten. Oinarrian, norberaren abiapuntu soziolinguistikoa eta euskarari aitortzen zaion balio soziala daudela esango nuke. Hau da, euskararen sustapenean norberari horrek nola eragiten dion, kontzienteki edo ez, asko eragiten du jarrera bat edo beste izateko orduan, eta hortik, errespetua ulertzeko modu ezberdinak. Azkenik, aldeak

ere baziren, hizkuntza ezberdinen balio soziala ulertzeko orduan (euskararen eta ingelesaren artekoa zehazki), euskararen «jabegoa», hizkuntza eskakizunen eta inbertsioen eta horien eraginaren eremuan. Baina guztietan, bizipen eta ikuspegi ezberdinen gaineratik, ondorio argi bat da elebkarren artean ere: ez dagoela euskararen normalizazioa sustatzearen kontrako jarrera trinko zabaldurik.

Esaldiekin adostasun maila, indizea (I0/I0)*



* Esaldi bakoitzarekiko adostasun indizea = («Guztiz konforme» azaldu direnen %a + (0,5 * «nahiko konforme» azaldu direnena) - (0,5 * «Nahiko kontra» azaldu direnen %a) - «Guztiz kontra» azaldu direnena)/10.

Iturria: Arabarren euskara ezagutza, erabilera eta iritzia, 2015. Aztikar.

HIZKUNTZEN KALE-ERABILERA, ARABAN

Olatz Altuna Zumeta
Soziolinguistika Klusterra. Kale-Neurketaren zuzendaria

2017ko uztailean argitaratu ziren Hizkuntzen Erabileraren VII. Kale-Neurketako datuak. Emaitzek zeresan handia eman zuten, eta horien harira hainbat artikulu, iritzi eta hausnarketa plazaratu ziren. «Araba, euskaraz bidea egiten» XXII. Jagon jardunaldian Arabako datuak aurkeztu genituen. Artikulu honek han esandakoak jaso ditu.

Hiru atal ditu artikuluak: ikerketaren metodologia eta ibilbidea deskribatzen du lehenengoak, Euskal Herriko ikuspegi orokorra ekartzen du bigarrenak, eta, azkenik, ikerketak Araban utzi dituen ondorio nagusiak xehatzen dira.

Arabako kaleetan euskaraz zenbat egiten den deskribatzea da testuaren asmoa. Hortik aurrerako hausnarketak, erabilera indartzeari begirakoak, ez dira hemen landuko.

I. IKERKETAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketan **Euskal Herriko kaleetako hizkuntza-erabilera** behatzen da. Kaleko hizkuntza-erabilera da aztergaia, eta datu-bilketa **behaketa bidez** egiten da. Neurtzaileek entzuten dutena jasotzen dute, kalean dabil-tzan hitzunei ezertxo ere galdetu gabe. Hitzunak ez daki behatua denik, eta neurtzaileek hitzunaren berezko portaera jasotzen dute interferentziarik gabe. Horrela, inkesta bidezko datu-bilketen subjektibotasuna saihesten da, emaitza fidagarriagoak lortuz.

Euskal Herri osoko ikuspegia lortzeko, lurralde, ingurune soziolinguistiko eta biztanle kopuru desberdinetako herriak neurtzen dira. Herri horietan, elkarrizketak behatzeko ibilbide batzuk definitzen dira. Herriko bizitza sozialaren adierazgarri diren kaleek osatzen dituzte ibilbideok. Bi neurtzailek ibilbide hauetan zehar paseatzen dute zenbait orduz, asteko une desberdinetan. Beren inguruan entzuten dituzten elkarrizketen datuak jasotzen dituzte koaderno batean —edo telefono mugikorrean—, diskrezio osoz. Metodologia honi buruzko informazio zehatzagoa *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa* argitalpenean jasotzen da (Altuna, O. & Basurto, A., 2013).

Esan dugu kaleko hizkuntza-erabilera neurtzea dela xedea, baina komeni da aztergai zabal horri buruzko ezaugarri batzuk zehaztea eta nabarmentzea.

- Hizkuntza non eta nola erabiltzen den deskribatzean, nahi beste espazio, ingurune eta egoera irudika daitezke: etxea, eskola, lantokia, lagunartea, etab. Kalea horietatik bat da. Eredu publikoaren erakusle garbia eta nabarmentzen da; ez, ordea, bakarra. Kale irekiaz ari gara, bazter utzita kalekotzat hartzen diren espazio itxiak. Klean neurtzeak espazioa zedarrizten du, agertoki askotarikoa, non era guztietako harreman eta elkarrizketak gerta daitezkeen.
- Zeharka bada ere, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak, edizioz edizio, esparru publiko horrek izan dituen aldaketak jaso ditu. Hizkuntza-erabilera ez ezik, klean bizitzeko eta kalea erabiltzeko moduetan eman diren aldaketak ere islatzen dira, nolabait.
- Kaleko elkarrizketak, normalean, gertukoaren arteko elkarrizketa informala izaten dira. Ohikoa da lagunaren artekoak edo senideen artekoak izatea.
- Elkarrizketetan parte hartzen duten solaskideak behatzen ditugu, inolako bereizketarik gabe. Inori ez zaio eskatzen bertakoa izatea, adibidez. Neurketa egiten den bitartean, une eta toki horretan daudenak neurtzen dira.
- Gaur egungo kale-bizitzaren erakusle den neurrian, haur eta emakumezko gehiago behatzen ditugu.
- Goiz eta arratsalde-ilunabarrak hartzen dira neurketarako. Gaueko eta ordu txikiak kale-bizitza neurketatik at geratzen dira, horrenbestez.


Euskal Herrian sorturiko metodologia hau hizkuntzen egoera zertan den eza-
gutzeko erreferentzia bihurtu da, eta ezinbestean kontuan hartu beharreko datuak
eskaintzen dizkigu. Gaur egun, erabat baliagarria da euskararen egoera diagnostika-
tzeko eta funtsezko bihurtzen da hizkuntza-errealitatea ezagutu edota planifikatu
nahi duen edonorentzat.

Zazpigarren edizioa dugu esku artean, lehenengoa 1989an egin zen eta lau-bost
urtero errepikatu da. Ia hogeita hamar urtean euskararen kale-erabilerak zein bila-
kaera izan duen aztertzeke parada dugu horretara.

2. EUSKARAREN KALE-ERABILERA EUSKAL HERRIAN

Gaur egun, %12,6koa da euskararen kale-erabilera Euskal Herrian. Ikerketaren
zazpigarren edizio honetan entzundako 187.635 elkarrizketetan parte hartu duten
solaskide gehienak gaztelaniaz ari ziren (solaskide guztien %76,4). Frantsesez entzun
dira solaskideen %8,3 eta, azkenik, %2,7 ari zen beste hizkuntzaren batean.


I. grafikoa: Hizkuntzen kale-erabilera. Euskal Herria, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Datu berri horiek zeresana eman dute azken hilabeteotan. Izan ere, 2011ko datuek adierazitako joerei jarraituz, azken hamar urtean euskararen kale-erabilera apaldu egin da.

2. grafikoa: Euskararen kale-erabileraren bilakaera. Euskal Herria, 1989-2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

Hala eta guztiz ere, portaera ez da bakarra eta homogeneoa lurraldeka. Beste edizioetan gertatu bezala, Gipuzkoan jaso da euskararen erabilera mailarik altuena

(%3Ikoa). Bizkaian ia %9, Nafarroan ia %7, eta Ipar Euskal Herrian eta Araban %5 inguruko erabilera neurtu da.


Era berean, lurralde guztiek ez dute bilakaera bera izan hogeita zazpi urte hauetan. Lautada baten irudia hartzen dute Araba, Nafarroa eta Ipar Euskal Herriko bilakaerek, 3., 4. eta 5. grafikoetan ikus daitekeenez. Baina aipagarriak dira bi ohar: Araban eta batez ere Nafarroan azken bost urtean gora egin izana, batetik; eta bestetik, Ipar Euskal Herrian, inoizko erabilera-indizerik baxuena behatu izana. Arabako datuak xeheago aztertuko ditugu hurrengo atalean.

3. grafikoa: Euskararen erabilaren bilakaera. Araba, 1989-2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabilaren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

4. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera. Nafarroa, 1989-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.


5. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera. Ipar Euskal Herria, 1989-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.


Gipuzkoari begiratzen badiogu, neurketaz neurketa euskararen erabilerak gora-kako joera iraunkorra zuela esan behar dugu, baina joera hori eten egin da azken bost urtean eta atzera egin du erabilerak. Eta Bizkaiaren kasuan, berriz, erabilerak 1997ra arte gora egin, eta 1997-2006 urte bitartean bere horretan iraun ostean, azken hamar urtean behera egin du.

6. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera. Gipuzkoa, 1989-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

7. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera. Bizkaia, 1989-2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

3. EUSKARAREN KALE-ERABILERA ARABAN

Arabian 16 udalerritan egin dira kale-neurketak (ikus zerrenda), eta horietan 17.010 elkarrizketa eta 46.035 solaskide behatu ditugu. Udalerrri horietan jasotako datuen analisi estatistikotik Arabako erabilera orokorra kalkulatu dugu. Gasteizen salbu, gainontzeko udalerrietan lagina ez da aski adierazgarria bertako erabileraren datua modu fidagarrian eskuratzeko, horretarako jasotzen den laginak (elkarrizketa kopuruak) handiagoa izan behar bailuke.

Eskualdea	Udalerrria
Arabako Ibarak	Erriberabeitia
	Erriberagoitia
Arabako Lautada	Agurain
	Gasteiz
Arabako Mendialdea	Bernedo
	Kanpezu
Arabar Errioxa	Bastida
	Eltziego

Eskualdea	Udalerrria
Arabar Errioxa	Guardia
	Oion
Gorbeialdea	Aramaio
	Urkabustaiz
	Zigoitia
	Zuia
Aiaraldea	Amurrio
	Laudio


Araba mailan jasotako datuen bolumenak bermatzen du fidagarritasun estatistikoa. Lagin-errorea $\pm 0,64$ koa da, %95eko konfiantza mailarekin.

Datuen argitan, honako sei ondorio hauek nabarmendu nahi ditugu:

a) Araban ehun solaskidetatik bost entzun ditugu euskarazko elkarrizketetan

Arabaren %4,6koa da euskararen kale-erabilera, eta hiriburuan, Gasteizen, %3,7 da ehunekoa. Banaketa demografikoa aintzat hartuta —hiriburuan bizi da lurralde osoko biztanleen %75, garbi dago Gasteizek pisu handia duela Arabako emaitzetan. Gasteiztik kanpo, eskualde batzuetan, euskaraz gehiago egiten den arren, batez beste erabilera ez da modu esanguratsuan aldatzen.

8. grafikoa: Hizkuntzen kale-erabilera. Araba, 2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

b) 1989 eta 2016 bitartean euskararen kale-erabilera ez da asko aldatu, baina azken bost urtean gorako joera hartu du

Aurreko atalean erakutsi dugun 3. grafikoan garbi ikus daiteke Arabako euskararen kale-erabilera %4 eta %5en artean dagoela aspalditik. 2011n %4koa zen ozta-ozta eta 2016an %4,6ra iritsi da.

Herrialdean nolakoa, halakoa izan da Gasteizko erabilerearen bilakaera, nahiz, esan dugunez, erabilera-datua bera baxuagoa den Gasteizen Araba osoan baino. 9. grafikoan jaso dugu Gasteizko bilakaera (Arabako bilakaera 3. grafikoan ikus daiteke).

9. grafikoa: Hizkuntzen kale-erabilera. Gasteiz, 1989-2016. (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabilerearen Kale-Neurketak. Euskal Herria, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.

c) Euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntzen erabilera %3,5koa da

2016an beste hizkuntzek kaleko elkarrizketetan duten presentzia %3,5koa da. Gogoratu behar dugu 2006ko neurketan hasi ginela beste hizkuntzen erabilera behatzen, hamar urteko perspektiba dugu, beraz. Garai hartan %2,5koa zen euskara edo gaztelania ez diren hizkuntzen kale-erabilera. Bost urte beranduago, 2011n, nabarmen egin zuen gora ehunekoak, %4,4ra. Aldiz, 2016ko neurketan jaitsi egin da beste hizkuntzen erabilera, nahiz eta duela hamar urteko erabilera mailaraino ez den jaitsi. Bizkaian ere hori da beste hizkuntzen kale-erabilerak izan duen bilakaera.

IO. grafikoa: Beste hizkuntzen kale-erabilera. Araba, 2006-2016. (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2006, 2011, 2016.

d) Zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara

2016ko datu berrienei erreparatuz, haurrek hitz egiten dute euskaraz gehien, eta gero datoz gazteak, helduak eta adinekoak, hurrenkera horretan. 1989. urtean bestelakoa zen egoera: haurrak ziren euskara gehien erabiltzen zutenak, baina jarraian, adinekoak eta helduak kokatzen ziren, eta gazteek hartzen zuten azken postua. Gaur egun, hizkuntza berreskuratzeari begira, izan daitekeen hurrenkera egokiena dugu.


II. grafikoa: Euskararen erabilera, adin-taldean arabera. Araba, 2016 (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016.

Hogeita zazpi urteko bilakaeran (1989tik 2016ra) haurren, gazteen eta helduen erabilerak gora egin du eta adinekoen erabilerak, berriz, etengabeko beherakada izan du. Azken bost urtean gazteen erabilerak behera egin du, baina haurrenak eta heldue-
nak ez.

12. grafikoa: Euskararen erabileraren bilakaera, adin-taldean arabera.
Araba, 1989-2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Araba, 1989, 1993, 1997, 2001, 2006, 2011, 2016.*

e) Adin berekoen arteko elkarriketetan, gazteen artean gehiago egiten dute euskaraz haurren artean baino

Garrantzitsua iruditzen zaigu hizkuntzaren erabilera zer-nolakoa den aztertzea harreman horizontalak —adin berekoen artean— eta bertikalak —adin desberdinekoen artean— bereiziz. Zenbait autorek garrantzi handia eman diote adin berekoen arteko hizkuntzaren erabilerari. Aipagarria da Paula Kasaresen lana (2015), non harreman *eszentrikoak* deituriko interakzioetan jartzen duen arreta. Hizkuntzaren transmisioaz ari dela, autoreak lagun adinkideen arteko harremanak familiako harremanen parean jartzen ditu, eta dio batera jokatzeko dutela, sozializazio prozesuan elkarrekin. Oso desberdintzat hartu ohi diren *etxea* eta *kalea-eskola*, ez dira hain erraz bereiztekoak haurrak euskaraz hazteko prozesuan. Bere hitzetan: «Egun urtebete ere ez duten hainbat ume haur eskoletan hasten dira eta etxeko hizkuntza erdara duena hor hasten da euskaraz jabetzen.» Haur horiek txikitako lagun adinkideen artean hasten dira euskaraz egiten. Eta pentsa daiteke haurtzaroan egindako harreman horizontal horiek gerora ere pisu handia dutela, bereziki hizkuntza-erabilerari dagokionez.

Arabako emaitzei begira, esan behar da adin bereko kideen arteko elkarrizketetan euskararen erabilera baxuagoa dela, adin desberdinetako kideen arteko elkarrizketetan baino. Horrela gertatzen da nabarmen haurren artean, eta modu apalagoan helduen eta adinekoen artean. Gazteen multzoan ezin dugu esan garbi hori hala denik, adin berekoen artean aritu ala ez, ez baitago alderik. Kontuan hartu behar da, gainera, behatu ditugun gazteen %80 adin bereko elkarrizketetan parte hartzen ari zela, alegia, gazteak haurrekin edo nagusiagoekin gutxitan topatu ditugula.

I3. grafikoa: Euskararen kale-erabilera adin-taldeka. Behatutako elkarrizketa guztiak eta adin berekoen elkarrizketak, 2016 (%)




Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketak. Araba, 2016.*

Beraz, oro har, harreman bertikaletan euskararen kale-erabilerak gora egiten du. Alderik nabarmenena haurrek parte hartzen duten interakzioetan gertatzen da. Haurren presentziak helduek euskaraz gehiago egin dezaten eragiten du. Eta, aldi berean, helduen presentziak haurrek euskaraz gehiago egitea ere ekartzen du. I3. grafikoa ikus daitezke portaera horiek¹:

¹ Elkarrizketak hiru multzotan sailkatu ditugu: haurrak eta nagusiak bakarrik daudenean, eta haurrak eta nagusiak talde berean daudenean. Nagusizat hartzen ditugu haurrak ez diren beste adin-taldeetako solaskideak: gazteak, helduak eta adinekoak.

I4. grafikoa: Euskararen erabilera, haurren presentziaren arabera.
Araba, 2016. (%)



Iturria: Soziolinguistika Klusterra, *Hizkuntzen Erabilera Kale-Neurketa. Araba, 2016.*

f) Emakumezko haur, gazte eta helduek euskaraz gehiago egiten dute, gizonezkoek baino


Adinaren eta sexuaren aldagaiak gurutzatuz gero, emakumezkoek gizonezkoek baino euskara gehiago darabilte adin-talde guztietan, adinekoetan izan ezik².

Araban ez ezik, gaur egun portaera hori orokortu egin da Euskal Herriko lurralde guztietan. Joera horren arrazoiak aztertu dituzte Jone Miren Hernandezek eta Jaime Altunak (2018).

I4. grafikoa ikus daitekeenez, sexuen arteko erabilera-alderik handiena gazteen artean ematen da. Beste adin-tarteetan aldea ez da hain nabarmena.

² Duela hamar urte ez zen horrela gertatzen Araban, haur mutilek gehiago erabiltzen baitzuten neskek baino.

15. grafikoa: Euskararen erabilera, sexuaren eta adin-taldearen arabera. Araba, 2006-2016 (%)



4. ONDORIO NAGUSIAK

Euskararen kale-erabilerak ez du aldaketa kuantitatibo esanguratsurik erakutsi Araban, eta %4,6ko ehuneko eman du 2016ko neurketan. Balio baxuetan dagoen arren, 2011-2016ko tartean gorakako joera ikusi da. Sintoma ontzat har daiteke joera hori, inertzia negatiboa eten eta biziberritze zantzua adieraz dezakeelako.

Adinari erreparatuta, horretan bada itxaropentsu izateko beste arrazoi bat, izan ere haurren eta gazteen erabilerak gora egin baitu azken bost urtean. Haurrek beraien artean euskaraz gutxiago egiteko antzeman den joera horri kasu egin beharko zaio, nolana ere.

Arabako erabilera datuak zertan diren azaltzea izan da gure helburua, aurrera begirako ekinbideak diseinatzeko lagungarri izango delakoan. Hortik harago, (Iñarra, M. & Altuna, O., 2017) artikuluan kontsulta daitezke euskararen erabilera indartzeko ildoei buruz egin ditugun hausnarketak.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Altuna, O. & Basurto, A., 2013, *Hizkuntza-erabilera behaketa bidez neurtzeko gida metodologikoa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. <http://www.soziolinguistika.eus/Gida>. [Azken kontsulta: 2017.03.02]
- Hernandez, J. M. & Altuna, J., 2018, «Euskara, generoaz mintzo?». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 106.
- Iñarra, M. & Altuna, O., 2016. «Euskararen ahazko kale-erabilera: erronkak». *Euskera*, 61, 2, 407-438.

- Kasares, P., 2015, «Euskararen belaunez belauneko jarraipena aztergai eta jomuga». *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 94, 13-45.
- Soziolinguistika Klusterra, 2017. *Hizkuntzen Erabileraren Kale-Neurketa. Euskal Herria, 2016*. http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016-_eu_I.pdf
[Azken kontsulta: 2017.07.28].



2. ERAKUNDEEN EUSKARA TEKNIKARIEN LAN ILDO BERRITZAILEENAK ETA ETORKIZUNERAKO ERRONKAK



LAN-ILDO BERRITZAILEENAK ETA AURRERA BEGIRAKO AUKERAK

Jokin Larrañaga
Arabako Foru Aldundiko Euskara zerbitziburua

SARRERA

Arabako Euskara Zerbitzuak (AEZ) deitzen diogu Arabako erakunde publikoetan lanean ari diren euskara teknikariek osatzen duten taldeari. Teknikaria ezinbesteko tresna izan arren, berez erakundearen erabakiaren baitan dago zer zerbitzu emango duen, eta Arabako Foru Aldundiko Euskararen Foru Zerbitzuaren (EFZ) eginkizun zehatzenetako bat lurraldean euskara zerbitzuak izatea denez gero, izanari izena emanez hasi behar genuela erabaki genuen Arabako Euskara Zerbitzuak (AEZ) sortuz.

Esan bezala, Arabako Foru Aldundia lurraldea ordezkatzeko duen erakunde publikoa den neurrian, lurraldeko euskara zerbitzuen sarea sortu zenez geroztik, hauek egonkortze bidean dira, eta orain helburu dugu euskara zerbitzuak koordinatzea, eta ahal den neurrian, elikatzea.

Ez dugu ahaztu behar EFZren helburua Araban euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko beharrezkoak diren neurriak sustatzea dela.

Misioa

Euskararen Foru Zerbitzuaren misioa da euskaraz bizitzeko aukera bermatzea hala nahi duten arabarrei. Hori dela eta, gizarte eragile, erakunde publiko eta Foru Aldundiaren gainerako sail eta zerbitzuekiko koordinazio, egikaritze eta elkarlanerako neurri eta ekimenak sustatzen eta garatzen ditu, euskararen erabileraren normalizazioan urratsak egiteko xedez, dela gizabanakoaren mailan, dela gizartean edo arlo ofizialean.

MUGARRITU

Lurraldearen luze-zabala kontuan hartuta, Aldundia bezalako erakunde batek ezinbestekoa du irismenerako beso eta eskuak izatea lurraldean, zein hobea horretarako eskualde guztietan sorturiko euskara zerbitzua baino? Hortaz, bi mailatako esku hartzeak egin ditzake Aldundiak:

a) Makro mailan:

- Arau mailako erabakien bitartez, eta lurralde mailako erakundeetan (Kuadrillak, Merkataritza Ganbera, Partzuergoak, Federazioak, udal eta udalen federazioa, enpresak...) estrategiak eta aliantzak garatuz neurriak hartu.
- Toki entitateen ESEP (Euskararen erabilera Sustatzeko Ekintza Plana) eta administrazioetako langileei begirako EENP (Euskararen erabilera Normalizatzeko Plana) planen estrategia berriak ikuspegi bateratuaz landu.

b) Mikro mailan:

- AEZ sareari baliabideak eman.

Maila makroan eta mikroan garatzen diren sinergiak elkar elikatzeko baliatu behar dira; horretarako ezinbesteko lana izango da helburu partekatuetan jardutea, koordinazioa eta plangintza.

Helburuak partekatzea, koordinazioa eta plangintza

Tokian tokiko ñabardurak gorabehera, lurraldean helburu asko partekatzen ditugula ohartuta, makro-mikro joan-etorrietan koordinazioa eman beharra dago norabide bietan. Ondoren, guztiona izango den plangintza bat zedarritu behar da.

Praktika ona da ikustea nola Gasteizko udalak bereak dituen zenbait programa Aldundiarekin duen hitzarmen batean partekatzen dituen, eta nola Aldundia arduratzen den gero Gasteizko udaletik sortzen diren baliabideak AEZ sarera zabaltzeaz, esaterako, euskalduntze eta merkataritza kanpainak, edota bi erakundeen artean elkarlanean garatutako Gazte Sortzaile beka bera ere.

Bigarren praktika ona AEZ barruko lantaldeak dira. Azken urteotan euskara teknikariok partekatzen ditugun hainbat behar, helburu eta egoera identifikatu ditugu, eta behar horiei etekina ateratzeko biderik eraginkorrena dela iritzi diogu lantaldeak eratzea eta horietan ditugun beharrak garatzea. Horren adibide dira ondorengo lerroetan agertzen diren esku-hartzeak, Arabako biztanleei eskainiak, modu bateratuan eta denon oniritziarekin. Kanpaina bateratuak, euskalduntze eta merkataritza kanpainetan; gurasoei aholku gidak helaraztea ikastetxeetako bileretan tutoreen bitartez; *euskaraba.eus* webgune berria egokitu eta berriro martxan jartzea; aisian eta kirolean aholku gidak sortu eta banatzea eragileen artean...

Abagunea egungo datuetan:

- Gazteen gehiengoa euskalduna izanik, abagunea izan dugu bestelako neurriak proposatzeko gazteen esparruetan.
- Zehar-lerroa garatzen hasiak gara, atak ireki ditugu, sailen artean helburuak eta programak partekatuz, esaterako, aisiako udaleku eta antzerakoetan, gazteentzako programetan edota kirol federazioetako esku-hartzeetan.
- Paradigma eta diskurtsoak berrituz: normalizaziotik euskarazko sozializazioa.
- Etokizuneko ebaluaziorako datu jasotze sistematikoa landu eta elikatu (Euskal Adierazle Sistema egitasmoa, EAS).

Horiek horrela, esku-hartze nabarmenak hauek dira:

Aisia euskaraz helburu partekatuan:

- EFZren laguntza deialdian aisiarako baldintzak:
 - Udalekuetako begiraleek gutxienez euskarazko B2 titulazioa edo baliokidea izatea.
 - Udalekuetako begiraleek «euskaren sozializazio ikastaroa» egitea, (Araba osoan aurtengo udan 300etik gora begiralek parte hartu dute), *egotetik eragitea* urratsa eginez.
 - Hartzailearen euskararen erabilera kontuan hartuko duten programak baloratzea.
- Hainbat formazio-saio berezi aisia enpresentzat, ikastetxeetako jantokietako enpresentzat eta begiraleentzat.
 - Formazio-aholku gidak hezitzaileentzat (3.000tik gora, dagoeneko, banatuta).
- Eragileak: AEZ, Berritzeguneak, Denon eskola, Gazteria Institutua, EBETE, aisia enpresak, aisia elkarteak, ikastetxeetako jantokietako enpresak...

Kirola euskaraz helburu partekatuan:

- EFZren laguntza deialdian, euskara ikasteko kirol federazioetarako laguntzak garatzeko lerro berezia (sei kirol federaziotako langileak euskarazko online ikastaroa egiten hirugarrenengo urtez).
- Aldundiaren Kirol Zerbitzuan kirol federazioetarako euskara planak egiteko laguntzak eta baliabideak sortu. Dagoeneko sei kirol federaziok eta hemeretzi kirol elkarteak osatu dituzte Euskara Planak.
- Formazio saioak kirol enpresa eta begirale-entrenatzaileentzat.
- Formazio aholku-gidak jarduera fisikoko hezitzaileentzat (2.000tik gora banatuta dagoeneko).
- 2017an Gasteizko udalarekin elkarlanean, Arabako kirol eragileekin topaketa: «Euskara marka eta erronka» topaketa.

Transmisioa helburu partekatuetan:

- Gurasoen hizkuntza tipologiaren araberako formazio saioak gurasoentzat.
- Formazio eta sentsibilizazio gidak gurasoentzat:
 - Aholku sorta gurasoei lehen hezkuntzako tutoreen bitartez.
 - *Kuku* liburua jaioberrien gurasoei, Osakidetzako emaginen bitartez.

AURRERA BEGIRAKO AUKERAK

2018an Euskadiko erakunde publikoek beren euskara planak (ESEP) berritu behar dituzte eta Araban ere halaxe da, noski. Dagoeneko hasiak gara aurreko planak ebaluatzen eta ondorioak ere proposatzen aldi berriari begira. Une magikoa da eta ilusioz betea, hurrengo lau urteak aurretik baititugu denok, eta aukera hau baliatu

nahi dugu AEZren bitartez Arabako erakundeetan ditugun helburuak eta estrategiak batzeko, partekatzeke eta hurrengo plan berrietan lehentasunak markatzeko, hitz batean, dugun bidea konpartitzeko eta programak eta ekintzak lehenesteko. Horrela, garbi dugu arestian aipatutako aukeren ildotik jarraitzea dagokigula:

- Gazteen esparruan zehar-lerroak lantzeko paradigma eta diskurtsoak eguneratu.
- Ebaluazio egituratuak aurreikusi.
- Helburu partekatuetan programa zehatzak diseinatu eta eskaini.

Aisian

Gazteria Institutuaren eta EFZren helburuak partekatu, koordinazioa bideratu eta plangintza adostu, ebaluazioa barne.

Kirolean

Kirol Federazioa, Kirol Zerbitzuan helburuak partekatu, sentsibilizazio saioekin jarraitu, Euskara Planak osatzeko gidak sortu eta banatu, koordinazioa bideratu eta plangintza adostu, ebaluazioa barne.

Transmisioan

Familia transmisioaren garrantzia gutxietsi gabe, transmisio molde berrien hazkunderan esku hartzeak planifikatzea dagokigu, adinkideen artean, behetik gorantz, eta ezkerretik eta eskuinetik bestalderantz, ikasten eta jolasten ari diren seme-alabek ere guraso elebakarrengan eragiten baitute hizkuntzaren transmisioan. Hau da, transmisio bide gisa, gazteen euskararen erabilera soziala garatzen den guneak baliatu: irakaskuntza eta irakaskuntzaz kanpoko edozein bitarteko, IKTak, aisia, kirol eta kulturguneak oro.

HIRITIK, EUSKARAZ BIDEA EGITEN

Alex Vadillo
Gasteizko Udaleko Euskara zerbitzuko teknikaria

ABIAPUNTUA

«Araba, euskaraz bidea egiten» jardunaldiaren aurkezpenean adierazi bezala, «mendetan atzerakada izan ondoren, azken hamarkadetan nabarmen hobera egin du euskararen egoerak Araban». Autokonplazentziak alde batera utzita ere, uste dugu egiatik asko dagoela adierazpen horren atzean. Aldaketa horren dimentsioak aztertzea izan da jardunaldiaren helburua, eta horretan parte hartzera gonbidatu gaituzte. Ez dugu uste aldaketa horren meritua gurea denik —ezta gutxiago ere—, baina uste dugu egindako ahalegina ez dela alferrikakoa izan.

Administrazioa ezin da beti berritzailea izan. Batzuen ustez, administrazioa kontserbadorea da, berez eta izatez. Ez dakit, bada. Iruditzen zait Arabako Euskara Zerbitzuetan lan egokia egin dela egoeraren argazki zintzoa irudikatzeko eta aurrera egiteko gakoak identifikatzeko.

LANA SISTEMATIZATZEA

EBPN lehenik (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) eta ESEP gero (Euskara Sustatzeko Ekintza Plana), biak izan dira, neurri handi batean, gure lanaren iparra. Hortik abiatuta, ahalegindu gara alorrez alorreko irakurketa propioak egiten, beharrrak eta erronkak ahalik eta egokien identifikatzen, eta hori guztia ekintza plan bihurtzen. Helduen euskalduntzean jardun dugu, aisialdian, kirolean, merkataritzan, kulturaren... .

Zeharlerroak ere landu nahi izan ditugu: genero ikuspegia, aniztasun berriak, gazteria... Horiek ere garrantzitsuak direla sumatu dugu.

Gasteiz hiri jendetsua izanik, euskaldun kopuru handia du, sarri barreiatuak bageaude ere. Horrek ezarri ditu gure lehentasunak. Gasteizen garrantzitsua da herri-tarrek harremanak euskaraz izateko guneak eta aukera estrukturalak indartzea. Euskaldunon sareak indartzen ahalegindu gara, eta gazteen artean aurkitu dugu horretarako aukera gehien.

GAZTE GARA GAZTE

Ez ditugu beste egoerak gutxietsi nahi, baina iruditzen zaigu Gasteizen zein Araban bereziki egoera interesgarria bizi dugula:

- Gazteen artean erdia baino gehiago euskaldunak dira, eta %80 inguru dira neurri batean ala bestean euskara ulertzen dutenak. IO eta I4 urte bitarteko haur-gaztetxoan artean, adibidez, hirutik bi euskaldunak dira, eta adin horretan euskara ez dakitenak %10 inguru baino ez dira.
- Datu hauek zer pentsa eman beharko lukete eta bestelako aldaketak eragin. Jauzi kualitatiboak emateko aukerak sortu, eta etorkizuna pentsatzeko moduak aldatu. Euskara hizkuntza minorizatua da Gasteizen, baina —jende gazteaz ari garela— ezin da dagoeneko esan gutxiengo baten hizkuntza denik.

Ahaleginen parte handi bat hortik zertu nahi izan dugu.

Soziolinguistika Klusterrak 2012an azterketa kualitatibo interesgarria egin zuen Gasteizko gazteei buruz: *Gazteak eta euskara Gasteizen (2012)*. Eztabaida taldeak antolatu ziren eta horretaz jardun zuten. Gazte horiek beren euskalduntasuna errei-bindikatu zuten, baina jarraian baita arazoak azpimarratu ere. Adibidez:

- «Euskara erabiltzea ala ez, ez da guztiz librea, baldintzatua dago. Bi muga ikusten dute: batetik norberaren borondatea, eta bestetik bestearen gaitasuna».
- «Gasteiztar eta arabar euskalduna zerbait 'berezi' gisa ikusten dute kanpoan. Jendea 'harritu' egiten da. Zerbait desatsegina da Gasteizko euskaldun gazteentzat».
- «Jokabide aldaketak oso zailak dira. Harremana nola eraiki, halaxe iraungo du gerora».
- Gasteizen deserosoa da lehen hitza euskaraz izatea. Beldurra dago, ez-euskaldunek eraso moduan ikusiko ez ote duten. Gainera, euskara gaitasun nahikorik ez duen jendea euskaraz deseroso sentitzen dela uste dute, mugatua.
- Euskararen inguruko aurreiritziak bizi-bizi daudela uste dute: «Euskara zaila da»; «Umeekin hitz egiteko hizkuntza da»; «Eskolako hizkuntza»; «Euskaraz hitz egitea politikoki markatua egotea da»; «Euskara ez dakitenei lehen hitza euskaraz zuzentzea errespetu falta da».

Garrantzitsua izan da, alde horretatik, gazteekin batera, euskarari buruz eta egoera soziolinguistikoari buruz gogoeta egiteko saioak antolatzea: *Ekolinguia* antolatu dugu Arabako campusean; *Euskararen Ginkana*, gazte eta gaztetxoekin, edota DBH eta Batxilergoko ikastetxeetan osatu diren euskara batzordeetako kideen arteko topaketak ere bai. Horiez gain, gazteei protagonismoa ematen dieten egitasmoak indartu nahi izan ditugu, batez ere sormena bultzatzeko helburua dutenak.

BESTELAKO EGITASMOAK

Egon da, gure ustez, lan-ildo eta ekimen interesgarri gehiago. Adibidez:

- Aisialdian eta kirol arloan 500etik gora entitate eta eragile zerrendatu ditugu: aisialdirako elkarteak, zerbitzu enpresak, kirol klubak edota guraso

- elkartek. Horietan oso egoera anitzak aurkitu ditugu: egoera oso aurreratua zuten entitateak eta euskararen presentzia hutsala zutenak. Bataren eta bestearen arteko aldea, sarri, pertsonengan zegoela ikusi dugu: euskararekiko kezka eta ardura duen pertsonarik duten elkarteetan, euskarak aurrera egin du. Arabako Foru Aldundiarekin eta Arabako Kirol Federazioen Elkartearekin batera jardun dugu. Elkarteetan euskararen eragile izan daitezkeen pertsonak identifikatu ditugu eta «*Marka eta Erronka*» topaketan bildu ditugu.
- Merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean hainbat urte daramatzagu pausoak eman nahi dituzten enpresa eta establezimenduei laguntzen. Erreferenteak bilatzen ahalegindu gara; edota erreferente berriak sortzen, eta horien arteko sareak bultzatzen, egituratzen eta sendotzen ere bai; argi izan baitugu sektoreak traktoreak behar dituela. Bidelagun interesgarriak aurkitu ditugu: Arabako Foru Aldundia, merkatarien elkarteak edota Bai Euskarari ziurtagiriaren elkartea, esate baterako. Bereziki interesgarriak iruditu zaizkigu #GasteizenBai eta #ArabaiBai izeneko kanpainak edota «*Leben bitzak balio handia du*» leloarekin egindakoa. Interesgarriak iruditu zaizkigu, batez ere, protagonismoa elkarrekin eta profesionalak hartu dutelako.
 - Eta berritasunen artean ezin ahaztu Oihaneder Euskararen Etxea eta *Alea* aldizkaria. Biak ala biak berriak izanik ere, dagoeneko ezin dugu Gasteizko egoera irudikatu bi horien ekarpenik gabe.

BAINA... ZER DA, GAUR EGUN, BERRITZAILEA IZATEA?

Egia esan, gure ustez, **berritzailea** izatea, gaur egun, ez da ZER, baizik eta NOLA. Litekeena da programak originalak ez izatea. Litekeena da beste inon, beste inoiz, antzeko zerbaitekin egin izana. Gure ustez, egiteko MODUA da berritzailea.

Gure iritziz, hiru gako dira, gaur egun, proiektu baten arrakasta bermatzen dutenak:

- **Lankidetz**a. Egitasmo berritzaileak lan kolaboratiboaren emaitza dira... Hitz klabe batzuk horietan dira: lankidetz, zubigintza, kolaborazioa, lidergo partekatua... Administrazioen arteko lankidetz, administrazioaren eta gizarte erakundeen arteko lankidetz, baita pertsonen arteko lankidetz ere.
- Jendearen **inplikazio**a da helburua, jendearen parte-hartzea, jendearen protagonismoa... Ahalmentzea hori da, azken batean: jendeak ahal duela sinistea... eragile edo agentzia.
- Egitasmo berritzaileek euskalgintzaren muga txikiak **zabaltzen** dituzte edo euskalgintza «txiki» horren mugak gainditzen dituzte. Beste arloetako eragile sozialak euskararen aldeko eragile bihurtzen dira, horien bidez.

Bide horretatik jo nahi izan dugu. Iruditzen zait Aldundiko, udaletako eta kuartiletako teknikariak elkarrekin lan egiten ikasten ari garela, nork bere entitatearen protagonismoari muzin eginez. Jendearrekin lan egiten ere ikasten ari gara: euskalgintzarekin, kirol arloko eragileekin, elkarrekin, gazteekin, hezkuntza arloko eragileekin, enpresariekin... Gure protagonismoa bigarren maila batean uzten ikasten ari gara, euskararen indarberritzea eginkizun kolektiboa izan dadin. Bide egokia dela uste dugu.

Horrek guztiak zerikusi handia du berrikuntza sozialaren definizioarekin:

Berrikuntza soziala ideia berriak sortzea da (produktuak, zerbitzuak eta prozesuak) bi helbururekin: (a) gizartearen beharrak hobeto asetzea, eta (b) gizartearen baitan lankidetzaren sareak sortzea, harreman sare berriak eta iraunkorrak, etorkizunari begira egoera hobean jarriko gaituztenak (kapital soziala deitu izan zaio horri).

Altuago bai, argiago ezin da esan.

BIBLIOGRAFIA

- Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala, 2017, [Bideoa]. *Marka eta Erronka jardunaldiaren laburpena*. <https://youtu.be/Uxl0ruV7N9Q> (azken kontsulta: 2018.01.31)
- Gasteizko Udala, 2013, *Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia*. Gasteiz. 2013-2017
- , 2017, [Bideoa]. *Gasteizen Bai bideo-laburpena*. <https://youtu.be/3wn9c39nE5Y> (azken kontsulta: 2018.01.31)
- Mendizabal, J. eta Vadillo, A. (2017) «Udalak eta euskaltzaleen elkarteak; funtzio banaketak eta lankidetzarako aukerak», *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 103 zbk.
- Murray R., Caulier-Grice J., Mulgan G. (2010), *The Open Book of Social Innovation*, The Young Foundation
- Soziolinguistika Klusterra (2012): *Gazteak eta euskara Gasteizen*. Andoain. www.soziolinguistika.eus/gasteizgazteak (azken kontsulta: 2018.02.02)
- Vadillo, Alex. (2017). Gasteizko euskal komunitatearen aktiboak, aktibazioari begira. *EuskoNews aldizkaria*, 725 zenbakia. Eusko Ikaskuntza. <http://www.euskoews.com/0725zkb/gaia72505eu.html> (azken kontsulta: 2018.02.03).

ARABAKO ERRIOXAN, KALEAN BIZI-BIZI

Leire Sueskun
Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillako euskara teknikaria

Euskararen normalizaziorako bidean hezkuntzak eta helduen euskalduntzeak zeresan handia izan dute, ezbairik gabe. Urteak dira haien bitartez euskararen zabal-kundea hasi zela. Gaur egun, bide horietatik egindako lanari esker fruitu ugari lortu ditugu; horien arteko adibidea, euskarazko ereduetatik pasatako ikasle asko familiak osatzen ari dira euskara harremanetarako hizkuntza oinarri hartuta. Hortaz, euskara «kanpotik» jasotzetik familiatik abiatzera pasa gara, neurri txikian bada ere.

Ereindako hazietatik uzta jasotzen ari garen arren, jarraitzen dugu ikusten bi bide horietatik egindako lana ez dela nahikoa euskaraz bizitzeko. Horretarako erabilera nahitaezkoa da, baina ezagutza ere bai. Horregatik, ezagutza ahaztu gabe, erabilera xede izango duen proiektua abian dugu Arabako Errioxan: «Kalean bizi-bizi».

«Kalean bizi-bizi» proiektuari 2015ean eman genion hasiera, nahiz eta lehenagotik horren oinarriak lantzen hasiak ginen. Proiektu horren bidez euskarari esparru berriak eskaini nahi dizkiogu eta modu horretan ume zein gazteei aukerak eman horietan ere euskaraz bizitzeko, euskaraz gozatzeko. Horretarako biderik egokiena eskolaz kanpoko kirol eta aisialdi eskaintzan eragitea da; hori izango da, hain zuzen ere, gure helbururik behinena proiektu honi dagokionez.

Aipatu berri dudan helburua betetzeko, «Kalean bizi-bizi» proiektuan bi lan-ildo nagusi definitu ditugu: batetik, gaztelania hutsean edo nagusiki gaztelaniaz egiten diren entrenamenduetan / jardueretan, hitzarmengintza oinarri hartuta, euskarak presentzia gehiago izateko planteamendu integrala eskaini gure eskualdeko klubei; eta bestetik, euskarazko entrenamenduak egiten diren jardueretara erreferente euskaldunak gerturatu maiztasun jakin batekin.

Lehenengo lan-ildoari dagokionez, segituan pentsatu genuen Luzerna futbol taldearekin lan egitea hainbat arrazoiengatik: eskualde osoko umeak, gazteak eta entrenatzaileak daude bertan; estruktura sendoa dauka; pertsona asko hartzen ditu bere baitan, 300 inguru; eta esparru honetan lan egiteko prest daude. Hori izan zen, hain zuzen ere, hasieran lehenetsi genuen taldea eta horri ekin genion. Bide horretan, baina, eragin-talde gehiago lortu izan ditugu: ikastetxeetako eskolaz kanpoko jarduerak (patinajea, arte ederrak, dantza, etab.). Lehenengo ildo honen bitartez, gutxi gorabehera, 400 pertsonarengan eragiten ari gara; eta planteamendu integrala izanda, askotariko jarduerak garatzen ari gara, esate baterako, prestakuntza eta trebakuntza.

Bigarren lan-ildoari dagokionez, eskualdeko pilota eskolekin lan egiten hasia erabaki genuen. Arabako Errioxan bost pilota eskola daude gaur egun: Bastidan, Guardian, Lapuebla de Labarcan, Oionen eta Ekoran. «Kalean bizi-bizi» proiektua abian jarri genuenean, guztietan ez ziren euskarazko entrenamenduak egiten; gaur egun, eta proiektu horri esker, bai. Pilota eskola horiek udaberri partean topaketak egiten dituzte pilota eskolak dauden herri guztietan, eta horietako batera eraman izan ditugu pilotari profesional euskaldunak. Haien parte-hartzea aurretik zehaztutako dinamika-tailer batzuetan txertatu izan dugu, eta modu horretan aukera izan dute pilota eskoletako umeekin zein gazteekin egoteko, euskara harremanetarako hizkuntza izanda.

Aipatutako bi lan-ildo horiek abian jartzeko, edozein proiektutan bezala, nahitaezkoa izan da aurretiko lana. «Kalean bizi-bizi» errealitate bihurtzeko eskualde osoan eragiten duten beste eragile batzuekin egon gara lanean: Ttiki-ttaka Arabako Errioxako euskaldunon elkarteak eta IKA Euskalategia. Horrekin batera, eta herri zehatzen batean eragin edo lan egin nahi izan dugunean, beti izan dugu tokian tokiko eragileen laguntza, esate baterako, ikastetxe, elkarte edota udalena. Lan-ildo berritzailea da jarraian zehaztutako arrazoiarengatik: lehenago landutako esparrua izan da aisia eta kirola, baina ez orain bezala; izan ere, proiektu hau hainbat esparrutako eragilek elkarrekin diseinatu eta abian jarritakoa da, elkarrekin abiapuntu beretik eta norabide berean. Lantaldean aritzeak ekarri dio berritasuna eta indarra esparru honi.

Lehenengo pausoa, beraz, proiektua diseinatzeko lantaldea osatzea izan da. Diseinuan honakook parte hartu izan dugu: Guardia-Arabako Errioxako Euskara Zerbitzuak, IKA Errioxa euskalategiak, Ttiki-ttaka Arabako Errioxako euskaldunon elkarteak, proiektuaren dinamizatzaileak eta EBETE Hizkuntza Zerbitzuak aholkulari gisa.

Proiektuaren helburua, xede taldea eta oinarritzko aspektuak behin definituta, bigarren pausoa izan da bidelagunak lortzea; hau da, proiektuarekiko atxikipenak lortzea. Hartara, proiektuaren dinamizatzailea banan-banan elkartu izan da Arabako Errioxako ikastetxe guztietako (lau ikastola, lau eskola eta institutu bat) zuzendari eta Ikasleen Guraso Elkarteko ordezkariekin proiektuaren berri eman eta haien babesa lortzeko: guztien baietza jaso izan dugu. Bilera horietan beste eragin esparru eta bestelako beharrak jaso ditu gure dinamizatzaileak. Orditik aurrera IGEEK proposatutako zenbait eskolaz kanpokoetan ere eragin genezakeela ikusi genuen eta IGEEK gure beharra zutela haien zenbait helburu betetzeko. Hartara, IGEEK haien eskolaz kanpokoak euskaraz egiteko pertsona euskaldun baten bila ibili direnean gure laguntza izan dute.

Lehenengo lan-ildoan egin behar izan den lana oso bestelakoa izan da bigarrenarekin alderatuta. Lehenengo lan-ildoan «Kalean bizi-bizi» proiektuko dinamizatzailea elkartu behar izan da banan-banan lehenetsitako aisialdi/kirol taldeekin, haien egoeratik abiatuta elkarrekin zehaztutako helburuak bete ahal izateko. Bigarren ildoan egindako lana puntualagoa izan da: topaketa edo data jakin batean erreferente euskaldunak eraman eta, dinamika batzuen bitartez, umeekin eta gazteekin egon harremanetarako hizkuntza euskara izanik.

«Kalean bizi-bizi» proiektua arrakastaz abian jartzen ari gara, neurri handi batean, honako arrazoi hauengatik:

- Eskualde izaerako eragileen indarrak batu ditugu (Tiki-ttaka Arabako Errioxako euskaldunon elkarte, IKA Errioxa euskaltegia eta Guardia-Arabako Errioxako Euskara Zerbitzua) proiektu honen hastapenetik. Gainera, tokian tokiko eragileen laguntza badugu behar dugun guztietan.
- Hitzarmengintzan oinarritutako proiektua da. Horrek ahalbidetu du abiapuntu eta helburu errealak zehaztea. Klub eta elkarte bakoitzarekin lanean ari gara, haien errealitatetik abiatuta, haiekin batera adostutako helburuak betetzeko.
- Proiektuaren babesa oso indartsua da: eskualdeko Ikasleen Guraso Elkarte eta ikastetxe guztiek ontzat eman dute proiektua; bat egiten dute harekin.
- Halako proiektuek jarraipen berezia behar dute eta horretarako dinamizatzailerik bat egotea nahitaezkoa da: ez bakarrik proiektuaren garapenez arduratuko dena, baizik eta bertan parte hartuko duten klub eta taldeentzako erreferente izango dena. Etengabeko hartu-emana dago bi aldean artean.
- EBETE Hizkuntza Zerbitzuak-en aholkularitza hau guztia zuzentzeko nahitaezkoa izan da: oinarriak definitu, proiektua garatu eta berriz definitzeko, esparru eta talde berriengana iristeko.
- Mezu bera zabaltzen ari gara bide eta eragile desberdinen bitartez. Horrekin eraginkortasuna lortzen ari gara.

Aurrera begirako erronkak ez dira makalak, lan asko baitugu egiteko:

- Proiektuan daudenekin (adibidez, Luzerna futbol taldea) lan egiten jarraituko dugu hasieran zehaztutako helburuak errotzeko eta erronka handiagoak zehazteko.
- Helburu berria epe motzean musika eskolak ditugu eta epe ertainean zenbait udaletako kirol eskaintzan eragitea.

«Kalean bizi-bizi» proiektuari esker, beraz, hezkuntza bidez egindako lana indartzen ari garela uste dugu: gure ume eta gazteei dakiten euskara eremu ez-formal batean erabiltzeko aukera ematen diegu eta hizkera informalagoa ezagutu/erabiltzeko ere bai. Euskaraz gozatzeko aukera ematen diegu, eta horrek hizkuntzarekiko bizipen positiboak izatea ahalbidetzen die.



GORBEIALDEKO KUADRILLAKO EUSKARA ZERBITZUA: GURE TAMAINAKOOK, ZERTAN GARA BERRITZAILE?

Manex Agirre
Gorbeialdeko Kuadrillako euskara teknikaria

Ez da erraza administrazioaren barruan berritzaile izaten. Berritzea arriskuak hartzea da, eta badirudi administrazioa berariaz dagoela antolatuta, egonkortasunaren izenean, arriskurik ez hartzeko. Herri-mugimenduek, jendarteak, euskalgintzak, lezio ederrak eman dizkio, historikoki, administrazioak herria euskalduntzeko izan duen balizko asmoari. Bide-erakusle izan da. Administrazioaren lidergoaz aritzeak paradoxarako bidea ekar lezake.

Dena den, ez dugu gezurrik esango garai bateko euskara-zerbitzuak eta gaur egungoak berdinak ez direla esanda. Administrazioak bere burua berritu badu (gehiago ez bada ere: gehiago izan da aingura), are gehiago berritu dute beren burua administrazioaren menpeko hizkuntza-zerbitzuek. Gero eta jende prestatuagoa ari da zerbitzuetan lanean, euskara-zerbitzu bati esanahi berriak, aterabide berriak, estrategia berritzaileak eransteko gero eta gaitasun handiagoa duten teknikariak ditugu. Formazio soziolinguistikoa oraindik sistematizatu gabe dago akademia-eremuan, baina gaur egungo teorizazioa ondo murtxikatutako langileak ditugu, oro har. Eta, beren ekimenez, galgak galga, berritzen goaz.

Gero eta onartuago dago, adibidez (gezurra badirudi ere), hizkuntza-normalizazioko tekninarion lana soziolinguistika-lana dela. Hau da, ez garela administrari edo itzultzaileak. Hizkuntza-normalizazioa zer den gero eta gehiago definitzen denean, normalizaziorako teknikariak zer egin behar dugun gero eta gehiago definitzen da. Eta bide horretan goaz.

Noski, euskara zerbitzu guztiak ez dira berdinak. Araban, adibidez, euskara zerbitzuen arteko aldea zehazten duen irizpide nagusia tamaina da. Dena baldintzatzen du. Oso ezberdina da Laudioko euskara zerbitzuaren eta Gorbeialdeko euskara zerbitzuaren lana. Dimentsionamenduak ez du markatzen soilik gure lan egiteko modua: zer egin erabakitzerako orduan ere eragin handia du.

Gorbeialdeko Kuadrilla: 9.500 herritar inguru, ia 500 kilometro karratutan sakabanatuta. Sei udalerrri, eta horien artean handiena, 2.000 biztanle dituen Zuia. Arabako landa-eremurako, herrigune handi samarrak dituen eskualdea da (Aramaioko Ibarra, Legutio, Murgia, Izarra...), baina nabarmena da landa-eremuaren adierazle nagusi den sakabanaketa demografikoa. Eta ezaugarri-sorta hau nahikoa da euskara-zerbitzuaren lan egiteko modua oso-osorik baldintzatzeko.

Udaletako administrazio-egiturak txikiak dira (are gehiago Kuadrillarena bera-rena): gehienez jota, IO bat langileko toki-administrazioak ditugu. Horrelakoetan, administrazio-atalen eta zerbitzuen funtzioen, egitekoen eta arduen arteko mugak lausotu egiten dira. Txarrerako, baina baita onerako ere. Langile espezializatuen defizita dagoenean, langile guztiak espezializatzen dira hainbat esparrutan, bakoitzak ahal duen neurrian.

Irudikatu, adibidez, euskara zerbitzuak antolatzen duen hitzaldi bat. Demagun euskal kulturen erreferentzia den sortzaile bat gonbidatzen dugula Urkabustaizko Kultur Etxera. Era horretako ekitaldi bat antolatzeak dakarren lan-prozesua, gutxi gorabehera, honakoa da:

1. Erakunde antolatzailearen antolamenduan eta agendan ekitaldiak duen lekua adostu eta finkatu.
2. Hizlariarekin harremanetan jarri, eta lotu beharrekoak lotu: data, diru kontuak, azpiegitura-beharrak...
3. Ekitaldia iragarri: komunikazio-euskarriak egin, eta zabalkunderako protokoloa gauzatu (webgunean eta sare sozialetan zintzilikatu, euskarri fisikoak banatu eta jarri, norbanakoen sareetan zabaldu, prentsara bidali...).
4. Ekitaldiaren eguneko ardurak hartu: aretoa prestatu, azpiegituraz arduratu (proiektorea, soinu ekipamendua, bestelakoak), harrera eta protokolo kontuak zaindu...
5. Ekitaldiaren balorazioa egin, diru-kontuak itxi...

Administrazio-egitura txikiek, horretan, badute herri-ekimeneko antolakuntza-egituren antza: ohituta gaude prozesu osoaren ardura gure gain hartzera (eta badakigu administrazio handiagoetan bazterrean dauden zerbitzuek ere antzera jokatu behar izaten dutela). Lan karga, ardura eta sasi-profesionalizazioa areagotzen du horrek, baina prozesu osoaren jarraipena egitea ahalbidetzen du. Ekitaldi bat, azken finean, transmisio-ekintza bat da, eta gure jarduteko moduak duen onuraren parte da transmisio-ekintza hori sortzailetik hartzailearaino kontrolatzea.

Gertutasunean du eragina jokamolde honek. Gertuko harremanak ditugu landa-eremuan. Zerbitzuen arduradunak eskuragarriak gara, eta hala izan behar dugu. Horrek, zuzenean eragiteko aukera ematen digu, aurpegiz aurpegi jokatzekoa, zirkulu txikien bidez funtzionatzekoa. Komunitate eta jende-kopuru irisgarriarekin (tamaina onargarrikoarekin) egiten dugu lan, ia beti. Aliatuak bilatu eta aurkitzeko erraztasunak dakartzat horrek.

Horrek, besteak beste, orokorkerian erortzeko tentazioa alde batera uztera garamatza. Badakigu zeinekin ari garen lanean (ia-ia izen-abizenekin zerrendatu ditza-kegu gure solaskideak), eta badakigu, tokian tokiko eta aldiari aldiko ezaugarriak estuki errespetatzen ez baditugu, ez dugula konexio zuzenik lortuko. «Herritar guz-
tietei oro har zuzendutako kanpaina» eta halakoak ezabatu egin ditugu gure eskuliburu-
ruetatik.

Horrekin lotuta, gaur egun Euskara Sustatzeko Ekintza Planak (ESEP), eta bere aurretik Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) eskaintzen dizkiguten eske-
mek, ados, balio digute, baina neurri bateraino bakarrik. «Aisia eta kirola» esparruan
zer lortu nahi dugun erabakitzea bezain garrantzitsua da, gertuko lanean, norekin eta
nola egin nahi dugun zehaztea. Are, esparru bat «aisia eta kirola» izan daitekeela esan

beharrean, agian, gurean, praktikoagoa izan daiteke kirol-elkarte zehatz bat esparru gisa hartzea. Malgutasunez jokatuz gero, hobe egin daiteke lan.

Gauzak egiteko moduak, zer egin erabakitzera ere bagaramatza. Egitura soiletan, indarrak ondo gorde eta ahaleginak ez bikoizteko lana egitea garrantzitsua da. Hor, garrantzitsua da konexioak ondo egitea.

Antolamendu hermetiko samarrarekin jokatzen dugu batzuetan, eta horrek, euskara biziberritzeko planak egiterakoan, atal iragazgaitzak sortzera eramaten gaitu. Programetan baino, programen, esparruen eta egitasmoen arteko konexioetan jarri behar genuke arreta gehiago. Hainbestetan aipatutako zeharkakotasunaren kontzeptuarekin zerikusi zuzena du horrek: euskara zerbitzuena soilik da euskara sustatzeko lanen ardura? Ala, ardura hala izanik ere, lana banatu beharra dute euskara zerbitzuek?

Lana banatzeko, dibertsifikatzeko eta ondo antolatzeko modurik eraginkorra da konexioak zaintzea. Landa eremuko udalerrri txikietan ia berez (ezinbestean) egiten da hori, harremana hain gertukoa izanik. Baina, hala ere, inertzien erruz, gure burua ixtera jotzen dugu sarri.

Hiru talde handitan sailka ditzakegu aipatutako konexio horiek:

- Nahitaezkoena, agerikoena, herri-mugimenduan eta euskalgintzan lanean ari diren eragileena. Arabako zokorik ezkutuenean ere, metropolitik urrundutakoenean ere, aurkituko dugu, gaur egun, euskararen inguruan lanean ari den mugimenduren bat. Mugimendu horrekin batera, konplizitatez, ardurak partekatuz eta lana banatuz antolatu ez den hizkuntza-planifikazioak oso ibilbide murrizta du. Ezaugarri hau ez da berritzailea, bilakaera handia izan baitute, azken hamarkadetan, eremu instituzionaleko euskalgintzaren eta herri-euskalgintzaren arteko konexioek (eta konexio faltek). Hala ere, kontuan izanik Arabako Kuadrillean orain urte batzuk sortuak direla euskara zerbitzu publikoak, izan daiteke berritzaile konexio mota hori sistematizatzea. Batak bestea gabe zereginik ez duela barneratzea. 2018aren amaierarako aurreikusitako Euskaraldiaren antolakuntza- eta lidergo-proposamena esperimendu ederra da horretarako.
- Gaur egun, erakunderik txikienak ere badu bere plana. Okerrenean, diru-laguntza deialdiren batera aurkezteko ezinbesteko baldintza zelako egingo zuten; onenean, aitzakia hori aprobeztatuta, gutxieneko hausnarketa bat egingo dute, gauzak zer-nola-nork-noiz egitearen gainean. Kontua da, bakoitzak bere plana argi duela, baina administrazio-egiturak ez daudela isolatuta. Udaletako planen, Kuadrilletekoen eta Arabako Foru Aldundiaren edo Eusko Jaurlaritzaren planen artean konexioak (ez paperean jasota bakarrik, noski) egon behar dute, eta konexio horien arabera jokatu beharra dago.
- Euskara zerbitzua kultura sailaren barruan kokatu izan da tradizionalki. Edo, are okerrago, kultura sailaren azpiko egituratzat hartu izan da. Tira, ez dugu ukatuko, administrazioak gurean historikoki izan duen egituraren barruan bere logika izan dezakeen kokaleku horrek. Baina gurean lekua aspalditik egingo duen zeharkakotasunari ez dio mesederik egiten horrek. Hizkuntzarekin egiten du lan administrazioak, eta administrazioaren sail guztiek egin behar dute hautu bat: hizkuntza bakarrarekin edo birekin

jokatu behar duten erabaki behar dute. Eta gizartera begirako lana egiterakoan ere, gizarteko esparru guztiei begira egin behar du lana (hala diote, gutxienez, planen egiturek). Agerikoa da konexio-beharra, izan zeharkakotasunaren izenean, izan ardura partekatuen izenean.

3. HAINBAT ERAGILEREN AHALEGINAK ARABAKO EUSKALDUNAK AKTIBATZEKO



HIZKUNTZA PORTAERETAN ERAGITEA HELBURU: 2016AN AGURAINEN «75 ORDU EUSKARAZ» ETA 2018AN LAUTADAN «II EGUN EUSKARAZ»

Asier Lafuente Ruiz de Sabando
Agurainen «75 ordu euskaraz»-eko kidea

2016ko azaroaren 8, 9, 10 eta IIIn, Agurainen «75 ordu euskaraz» ekimenaren bitartez euskaldunen aktibazio kolektiboa burutu genuen; autogestionatuta eta autofinantzatuta, hau da, instituzioen parte hartzerik gabe.

Euskara beharrezko egin nahi genuen, lau egun horietan bederen. Erdarara lerratu gabe, euskarari eutsi behar zioten Aguraingo 18 urtetik gorako euskaldunek. Edozein egoera delarik, euskarari eustea baita norbanakoen hautua euskara beharrezko egiteko. Norbanakotik hasita, baina 284 lagunek batera egitearen babesarekin, norberaren hizkuntza ohiturak aldatzea egingarriagoa da era kolektiboan egiten bada. Gure hizkuntza ohitura desegokiaz kontziente izan gara, eta hizkuntza portaera berriak probatu ditugu. Sei hilabeteko prozesua izan da «75 ordu euskaraz».

Euskaldunei hizkuntza portaera berriak probatzeko abagune egoki bat sortu genuen. 75 ordu euskaraz bizitzeko konpromiso sinatzaileei ondorengo hizkuntza portaerak aurrera eramatea proposatzen genien:

- Lehenengo hitza euskaraz, erdaldunei ere bai.
- Elkarrizketa motzetan beti euskaraz.
- Zure inguruko batzuekin adostu euskaraz.
- Erdaraz erantzuten badizute (horrek esan nahi du ulertu dizutela) eutsi euskarari.
- Segi euskaraz, erdaraz hitz egiteko eskatzen ez dizuten bitartean.
- Erdarara pasatzeko eskatzen badizute aukera ezberdinak daude.

Portaeraz hitz egiten ari gara. Portaera bat behin eta berriro errepikatzen denean ohitura bihurtzen da. Ohitura bat ordezkatzeko portaera berri bat behin eta berriro erabili behar dugu. Gogoratu behar dugu ohiturak kulturalak direla; sarritan Kataluniarekin konparatzen dugu hizkuntzari eusteko ohitura ezberdintasuna, baina urrunera joan gabe, UEMAK Bermeon eta Ondarroan egindako ikerketak ondo baino hobeto erakutsi du kilometro gutxitan egon daitezkeen ohitura ezberdinak.

Martxotik azarora arte, euskaldunek egoera ezberdinetan euskarari eusteko baliabideak bereganatzeko hainbat ekintza burutu genuen: euskarari eusteko tailerak, hitzaldiak, dekalogoak eta gomendioak hainbat euskarritan buzoneatu,

mikrobideoak... Aguraingo 284 lagunek konpromisoa hartu zuten azaroaren 8tik IIra euskaraz egiteari eusteko.

Sei hilabete horietan ere, erdaldunei jarrera eta portaera berriak proposatu genizkien, euskaldunek sortutako egoera berri horietara egokitu ahal izateko. Laburbilduz, portaera berri hau eskatu genien:

- *Si te hablan en euskara tómatelo con tranquilidad, intenta entenderle, aunque no lo entiendas todo.*
- *Si estás en un grupo entre personas que sabes que hablan en euskara o en una reunión o grupo de whatsapp, ánimoles a que hablen en euskara.*

Kolektiboan, establezimenduen eta erakundeen bitartez, erdaldunei proposatu genien elkarrizketa elebidunak ahalbidetzea eta euskaldunari erdaraz hitz egiteko ez eskatzea. Guztira, 134 kolektibok, erakundek eta establezimenduk parte hartu zuen. 134 gune hauek bistaratu genituen modu ezberdinetan: gida bat, mapa digital bat, txartelak, alfonbrak...

Sei hilabeteko prozesu baten ondoren eta lau egun horiek bizi ondoren, Agurainen euskaraz bizitzeko inertzia sozial bat geratu dela esan dezakegu. Horrela ondorioztatu dugu 284 sinatzaileei egindako galdeketa bitartez.

- Egitasmoak hizkuntza mudantzak egitea ahalbidetu du.
- Erabilera errazteko prestatu diren eremuetan harreman berri gehiago lortu dira.
- %79k oinarrizko mailako aktibazioarekin eragin du, hau da, euskal hitzun modura aurkeztu du bere burua, lehenengo hitza euskaraz esanez.
- %20-25 aktibazio maila sakonagoan sartu da, horiek dira edonon eta edonorekin euskaraz egiteko eskatutako konpromisoa bete dutenak.

Bi urte ondoren, 2018an, bat egin nahi dugu Euskal Herri mailan proposatzen ari den «II egun euskaraz» ekimenarekin edo Euskaraldiarekin. 2018ak lau ezberdintasun dauzka 2016an antolatutakoarekin alderatuta:

- Ahobizi / Belarriprest txapen bitartez funtzionatuko du identifikazioak. 2016an ez genuen txaparik erabili.
- Geografikoki zabaltzea lortu nahi genuke Lautadako 63 herrietara.
- Sektoreka antolatuko gara, hau da, hezkuntza, kultura, lana, merkataritza, aisialdia... gizartearen sare guztietara iristeko asmoz.
- Instituzioekin elkarlana lortu nahi dugu. Instituzio publikoen erantzukizuna delako, egitasmoari legitimitate soziala ematen diotelako eta uste dugu lako instituzioek duten ahalmen ekonomikoa oso eraginkorra izango dela.

Horretara goaz.

GEU ELKARTEA

Maialen Agirre
GEU elkarteko teknikaria

ZILARREZKO EZTEIAK

GEU elkarteak 25 urte bete ditu aurten. 1992. urtean sortu zen Gasteizen euskararen erabilera sustatzeko eta euskaldun eta euskaltzaleen komunitatea trinkotzeko asmoarekin.

Gaur egun 800 bazkidezik gora ditu, eta lan boluntarioa egiten duten pertsonen gain, soldatapeko sei langile ari dira lantalde profesionalean.

GEU GOGOETA PROZESUA

2016an *Zeu zara GEU: Gasteizko euskararen komunitatea* gogoeta prozesua burutu zen. Hauek dira bertatik ateratako ardatz nagusiak:

- Izan: Barne komunitatea sendotu eta GEU izaera indartu.
- Egin: Egitasmoak indartu, eta euskararen aktibazioan aritu.
- Eragin: GEU elkarteak Gasteizko euskaldun eta euskaltzaleon, euskalgintzako eragile zein erakundeen erreferente bihurtzea da helburu nagusia.

EGITASMO BERRI BATZUK:

Ardatz horietatik tira eginez egitasmo berriak jarri dira martxan orduz geroztik, eta hainbat arlotan aritu da lanean: hedabideak, kultura, aisialdia, mintza praktika, etab. Gehien-gehienetan, elkarlana izaten da lanerako oinarrietako bat, eta planteamendu hori mota ezberdineko eragileekin gauzatzen da: euskalgintzako beste eragileekin, herri-erakundeekin eta norbanakoekin.

ALEA Komunikazio Taldea

Komunikazioaren gizartean omen gaude, eta euskarak ere eremu horretan leku egokia eskuratu behar du. Asmo horrekin, 2015ean, sortu zen Arabako Alea Komunikazio Taldea S.L. (<https://alea.eus/>), eta enpresako akziodun nagusia GEU

elkartea da. Berria eta Goiena Taldea ere akziodunak dira egitasmo honetan. Toki-kom-eko kidea ere bada ALEA.

Hezitzaileentzako formazioa, *Hau jolasa baino gehiago da*

Euskara izaten da udalekuetan zein aisialdian lanean ari garen lagun askoren helburu eta buruhauste. Helburu nagusien artean garrantzitsuenetarikoa dela azpimarratzen da beti eta, eginahalak eginahal, askotan ez dugu helburu horiek betetzea lortzen... Hortik abiatuta sortu zen 2017ko udan *Hau jolasa baino gehiago da!* izeneko gida eta gida hori lantzeko formazio saio praktikoa. Bada, Arabako 200 hezitzailek baino gehiagok jaso dute formazio saioa dagoeneko. Parte hartu dutenei Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak homologatutako ziurtagiria banatu diete.

Begi Belarri ikus-entzunezko zikloa euskaraz

Urte berriarekin batera abian da berriro ere *Begi Belarri* ikus-entzunezkoen zikloa. Oihaneder Euskararen Etxeak eta GEU elkarreak elkarlanean antolatuta, urtariletik apirilera bitarteko egitarauarekin osatua da. Hiru film-dokumental eta film laburren emanaldi bat eskainiko ditugu denbora tarte horretan. Emanaldi guztiek bi atal izango dituzte: alde batetik, film-dokumentala proiektatuko da, eta, bestetik, filmaren zuzendariarekin, istorioaren protagonistarekin edota jorratzen den gaiarekin lotura duten hizlariarekin solasaldia egingo da. Saio guztiak Oihaneder Euskararen Etxean izango dira.

Gazte Sortegiak, sormena bizitzeko laborategia

2018ko Pazko astean bost eguneko sormen egonaldia proposatzera dator *Gazte Sortegiak*, sormen laborategia ekimena. Lagun artean sormena bizitzea, gazte sortzaileen sarea elikatzea eta euskararen erabileran eta gaitasunean eragitea bilatzen du. Ekimena I4-I8 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago, eta Arabako lau sortzailearen bitartez gauzatuko da. Horrela, egonaldiko egun bakoitzean sortegi bat landuko da, lau guztira: bertsolaritza, musika, antzerkia eta ikus-entzunezkoak.

Oihane Perea Arabako Bertsolari Txapelketako txapeldunak gidatuko du *Bertsoa jolas* izeneko sortegia. Bertan ahozko kultur sorkuntzen adierazpide ezberdinen lan-keta egingo du. Jon Basaguren musikari eta esatariak letradun musika landuko du *Musikaz egin* izenpean. Unai Lopez de Armentia antzerkilari eta Baratzeta aretoko arduradunak antzerki teknikak landuko ditu *Antzerki-aterki* izeneko laborategian. Azkenik, Maider Oleaga zuzendari eta gidoilariak ikus-entzunezkoak izango ditu langai *Zer daki begiak soinuez?* galderaren testuinguruan.

Gasteiztik kanpo egiteko diseinatuta dago; zehatzago, Kanpezuko Ibernalo Aterpetxean. *Gazte Sortegiak*, sormen laborategia egitasmoa Oihaneder Euskararen Etxearen, GEU elkarrearen, Arabako Bertsozale Elkarrearen, Mintzola Ahozko Lantegiaren, Topagunearen eta Arabagara elkarrean lankidetzaren emaitza da.

Egonaldiaren ostean, 2018-2019 ikasturtean, sormen eskola abiatuko da Oihaneder Euskararen Etxean. Eskolaz kanpoko ekintza bezala planteatuta, astean behinako saioetan antolatuko da.

Euskarak 365 egun ekimena

Euskararen Topaguneak abian jarri zuen *Euskarak 356 egun* ekimena eta, bilgune horretako kidea izanik, GEU elkarteak bat egin zuen, hasiera-hasieratik. Asmoa zen euskaldunen aktibazioa, euskararen erabilerak hazkundera izan zezan.

2016ko datu soziolinguistikoen arabera, euskararen kale-erabilera murriztu da Euskal Herrian. Araban, berriz, erabilera horretan aurrerapauso apalak baina positiboak egon dira, eta kale erabileraren ikuspegitik, hiriburuen artean, Gasteiz bigarren posizioan dago. Datu orokorrak ikusita, euskalgintza herritarra eta administrazio publikoa bat datoz datuetatik eratorritako diagnostikoan: euskararen erabilera areagotzeko hizkuntza ohituretan eragiteko beharra dago.

Asmo berarekin, zenbait ekimen jarri da martxan Euskal Herriko zenbait herritan, eta esperientzia positiboa izan da. Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak esperientzia horiek Euskal Herri osora zabaltzeko erronka martxan jarri dute, 2018ko udazkenean hasita. Ekimenak *Euskaraldia* du izena.

Euskaraldiarekin bat eginez, GEU elkarteak bere gain hartu du ekimen hori Gasteizen martxan jartzeko ardura. Horretarako, Gasteizko euskalgintzaren sostenguari erekin batera ari da proiektuaren sozializazioan. Halaber, Gasteizko Udala zein Arabako Foru Aldundia ekimenaren parte dira.

Gasteizen euskararen erabilerak izandako bilakaera kontuan izanik, hiriak ahalmen handia duela uste dugu. Alegia, ekimenak Gasteizen oso erantzun zabala izan dezakeela uste dugu. Gure apustua *Gasteizen olatua itzela izatea* da!!



GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA — OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA *KULTURA NORA, EUSKARA HARA*

Iñaki Lazkano
Lazarraga Kultur Elkartea / Oihaneder Euskararen Etxea

Henrike Knörr ekarri nahiko nuke gogora artikulu honen hasieran. Berak esanda jakin baikenuen, gutako batzuk, bazela Oihaneder eta Montehermoso izenen arteko harremana; bigarrena lehenengoaren itzulpena zela, antza. Henrikek azaldu zigun nola bertako etxeoandreaki, Salcedo eta Chavarriko Maria Antoniari, markesa titulua eman zioten Espainiako errege-erreginek 1708an; eta nola berak, Nafarroako Urritzola herriko «Oyanederra» jauregiko maiorazkoa izaki, jauregi hori aukeratu zuen markesa tituluari lotzeko. Hortik aurrera, Montehermosoko markesak eta Palacio de Montehermoso izango ziren bertako nagusiak eta etxea bera, euskarazko «Oyan» eta «ederra» hitzen itzulpenak baliatuz.

Eta duela hiru urte, Gasteizko udalarekin batera, Montehermoso jauregi honetan Kafe Antzokiari eta Euskararen Etxearen proiektuari hasiera eman genionean, egoki iruditu zitzaigun Oihaneder izena berreskuratzea eta egitasmoaren lehen hankari izen hori ipintzea. Berde kolorea ere aukeratu genuen gure proiekturako, oihana- ren kolorea, beraz, ezin egokiago!

Egitasmoaren helburu eta ezaugarrietan sartu aurretik pare bat aipamen ekime- naren testuinguruaren eta historiaren harira:

Euskaltzale arabarrek aspaldi erreparatu zioten —batez ere XX. mendeak aurrera egin ahala, eta, orduko Vitoria gaztelaniazalea zela, Gasteiz euskaldun iza- teko bidean jarri nahian— kontuan hartu beharreko eginkizunen artean, honako honi: kultura euskaraz garatzearen garrantziari, kulturaren adierazpide oro euskaraz ere egin zedin sustatzeari.

Ezagutza ezinbesteko abiapuntu hartuta, euskara ikasi zuten lehen arabarrek berehala ekin zioten ekitaldi kulturalak antolatzeari, eta hor ditugu Baraibar taldeko Odon Apraiz eta konpainia, beste jarduera batzuen artean, Euskal jaiak antolatzen Araba osoan zehar. Begira Odonek berak zer dioskun Leintz-Gatzagako San Martin Zurtintzako ermitan 1929ko uztailaren 27an antolatutako jaiari:

Badagoz Araban euskerea dakiyenak gurasoekandik artuta Aramayon, Billerla edo Legutianon, Barrundi, Zigoitia ta Laudio aldean. Bagagoz beste batzuk, umetan erdaldunak izanik, euskerea ikasteko alegiña egin dugunok.

Baña badakixube Araba geyenian euskerea gure antxineko izkuntza edo berbetia dala, ta euskel-oiturak aspaldi galdu zirala zoritxarrez, batez be Gazteiz edo Bitorixa onduan ta Arabako Ego aldean.

Baña Arabako euskalzaletasuna etzan il, lozorruan geratu baño, eta ori erakusteko irasi zan Gazteiz bertan ta Eusko-Ikaskuntza barruan, «Baraibar» izendun batza. Batz orrekuak, gaur Gatzagara etorri geranok, batzuk euskeldunak yayotzez dira, beste batzuk euskeldun barriak gara, bestiak euskerea euren abizen edo apelliduetan ta euren biyotz, adimen ta gurariyetan euskalzaletasuna daruenak.

Ori dala ta, gaur Gatzagara etorri gara arabar euskaldun ta euskaltzaleak, beste euskaldunei besarkada ekarteko. Erakutsi gura dautzuegu Arabako ta Gasteizko euskaldasuna eztaula berriz bizi bihar, inoiz il etzalako, baño bai orain «berpiztu», berriz-biztu eragin gura dogula, eta au-danau ereisteko itxaropen ederra dogula.

Esan daigun beraz gaur Gatzagan batu geranok biyotz bakar eta abots bakar bategaz: ¡Gora gure Erriya! ¡Gora Euskerriya!

Handik gutxira etorriko zen Gerrak, eta ondorengo diktadurak, orduko ahalegin euskaltzale gehienak zapuztu zituen, eta 60ko hamarkadara arte itxaron behar izan zen Gasteizen euskal kutsuko kultur hatsen bat arnastu arte.

Diktadurak askatasun zirrikitu kultural batzuk izan zituen, eta bertatik barrena ibili ziren hiriko euskal kulturzaileen nahiak: Ez Dok Amairu taldeko partaideen kontzertu batzuk, *Euskal jai* izeneko irratsaioa Radio Vitorian, mendi irteeretako erromeria euskaldunak, musika-bakarlariak, abesbatzak eta beste zenbait adierazpide kultural euskaldun izan ziren frankismo bukaerako lagin apurrak.

Franco hil ondoren, 80ko hamarkadan hasiko ziren Gasteizko euskaldun «berriak» eta Gasteizera etorritako euskaldun berriak hainbat sorkuntza euskaldun abian jartzen. Alde batetik, Xabier Montoia bezalako musikari eta idazleen eskutik, eta bestetik Bagare Euskal Tokia bezalako kulturguneak antolatzetik.

Hurrengo urteetan ibilbide ezberdineko ekimen euskaltzale interesgarri ugari jarri ziren abian, GEU elkarte ta *GEU Gasteiz* aldizkaria, adibidez. Horrez gain, euskal herrietan sortzen ari ziren kulturgune euskaltzaleen antzeko baten beharra sumatzen hasi zen Gasteizko euskaltzaleen artean, eta hemen bertan Kafe Antzoki bat egiteko lehen ahaleginak egin ziren 1998an, baina ez zuten aurrera egiterik izan, oraindik ere Gasteizko lurak ongarri beharra baitzuen.

Beste hamar urte itxaron behar izan genituen euskara ardatz izango zuen azpiegitura baten proiektuaz entzun ahal izateko, eta orduko hartan udaletxean bertan izan zen, eta alderdi politiko guztien onspena jasota, gainera. Lehenengo pausoak eman ziren eta egitasmoaren oinarriak irudikatzen hasi.

Zenbait gorabeheraren ondoren, herri ekimen batek heldu zion erronka handi horren lanketari ta Gasteizko Kafe Antzokiaren Aldeko Plataforma sortu zen. Urte batzuen buruan prest zuen egitasmo berri bat: orain aurkeztuko dizuedan Kafe Antzokia ta Euskararen Etxea proiektua.

Oihaneder Euskararen Etxearen Inaugurazio egunean esan bezala, oraingo euskaltzale arabarrak kate luze baten katebegi berriak baino ez gara; behinola, Landa-zuri ta Prestamero, Baraibar ta Becerro de Bengoa, Olabide ta apraiztarrak, urrestarazutarrak ta Lopez Presa, edo Mitxelena ta Knörr izan ziren bezala; eta

azken urteetan, AEK, IKA eta GEU elkarteak, Arabako Bertsozale Elkarteak eta Zizta Euskara Taldea edo Lazarraga Kultur Elkarteak eta Oihaneder Euskararen Etxea talde, elkarte eta egitasmoak diren antzera.

Asko dago egiteke, ez bakarrik Araban, baina zazpigarren alaba izatea akuilu berezi bilakatzen zaigu gure euskaltzetasunean; eta lotsarik gabe, ausardiaz eta imajinazioz, gaur aipatutako hainbat ekimen martxan jartzera eraman gaitu azken urteotan.

Horietako adibide bat da aipatutako GKA-OEE egitasmoa, eta irudi bidezko aurkezpen batekin azalduko dizuet.



ZER?

Aisialdiari eta kultur gintzari lotutako **topagunea**

Gasteizko Kafe Antzokia egitasmoaren lehen oinarria.

Euskara du ardatz

Kultur gune eta **sorgunea**

Sortzaileen eta euskaltzaleen **elkargunea**

Arnasgunea izan nahi du



GASTEIZ

+



BERDEA

+



ELKARGUNEA

+



ESPAZIOA

+



SAREA

+



ANIZTASUNA



NON?

Gasteizko erdigunean

Hiria lau aldeetara zabaldu da baina Montehermoso-Oihaneder jauregiak bertan darrai

Gasteiz berriaren erdigunean

Bere funtzioa betetzeko leku ezin hobe

Amasgunea: euskara eta kultura erdigunetik Gasteiz osora barreiatzen duena





ZERTARAKO?

Apurka-apurka sortzen eta eraikitzen ari den proiektua
Lehen pausoa eman da, baina gehiago emango dira

Erakutsi
Sortu
Ikusi-entzun
Komunikatu
Ikasi
Hitz egin
Jolastu
Antolatatu



Duela gutxi Nobel saridun bati honako baieztapena entzun nion: «Hezkuntzak gizaki egiten gaituen bitartean, kulturak amesten laguntzen digu».

Horretarako sustatzen ditugu horrelako proiektuak, egunen batean euskararen lurraldeetan gure hizkuntzak Arabako euskaldunengan bere funtzio guztiak aise eta gogotsu garatuko dituela amesteko: erredakzioetan aleka-aleka komunikatzeko gaitasuna, bertso-plazetan errimaka sortzeko imajinazioa, kaleetan zitzadaka maitatzeko sentiberatasuna eta mikrofonoen aurrean algaraka adarra jotzeko jariotasuna.

Hala bada gaur, hala izan bedi bihar.

«Len, orai ta beti»



EUSKARA TREBIÑUN GUTXISOLO ELKARTEAREN IKUSPEGITIK

Pilar Ansotegi
Gutxisolo Elkarteko kidea

Trebiñuko Gutxisolo euskara elkartearekin hasi ginenean, duela 20 urte inguru, ez genukeen sekula pentsatuko Euskaltzaindiaren jardunaldi batzuetara gonbidatuko gintuztenik. Hasiera batean, gonbidapena jaso genuenean, zalantza izan genuen etorri ala ez, baina azkenean esatekorik bageneukala pentsatu genuen.

Esan bezala, duela 20 urte sortu genuen Gutxisolo elkarte. Uda izeneko elkartearen eskutik helduentzako euskara eskolak antolatzen hasi ginen. Eta talde hartan euskararen arloko hutsunea betetzeko premiaz ohartu eta antolatzen hasi ginen. Hasieratik, argi genuen umeei zuzendutako ekintzek lehentasuna izan behar zutela.

Horretarako, Kukubiltxo; Hortz muga; Takolo, Pirritx eta Porrotx; Angel Alkain; Paraiso eta Txan magoa bezalako artistak izan ditugu gurean. Hauetako asko baldintza berezietan eta borondate onenarekin etorri izan dira. Hemendik, eskerrik beroenak.

Haurrentzako ekintzekin batera, adin guztientzako gauzak antolatzen hasi ginen. Euskal Herriko lurrak eta kultura ezagutzeko txangoak, ibilbideak eta jardunaldiak antolatu genituen, Maulera, Zugarramurdira, etab. Baita Trebiñun bertan ere, Herriz Herri kanpainarekin, errotaren ibilbideekin edo mikologia jardunaldiekin, besteak beste.

Ekintza guztietatik garrantzitsuena urteroko Euskal Jaia izan da. Ezagutzen ez duzenok, jakin ezazue Trebiñu 5I herrik osatzen dutela, eta jai honekin herri gehienetara iritsi gara. Jai honekin, euskaratik urrun zegoen jendea naturaltasun osoz hurbildu eta jaiaren barneratzea lortu dugu. Adibidez, toponimiaren inguruko hitzaldiekin, euskara Trebiñun zein errotuta dagoen ikustean, harrিতuta geratzen ziren.

2011n ere, Korrikaren hasiera Trebiñun izan zen, eta, duela sei urte inguru, lanaldi erdian bada ere, Trebiñun euskara teknikari postua egon dadin lortu dugu.

Oso ibilbide emankorra izan da eta guri pertsonalki asko eskaini diguna. Baina, dena ez da ederra izan, eta oztopoak eta zailtasunak ugariak izan dira.

Hasierako euskara eskoletan Guardia Zibilaren kontrola izan ohi genuen eskolako atean, Korrikaren egunean herria osorik hartu zuen Guardia Zibilak, legez kanpo arituko bagina bezala. Eta hau duela sei urte gertatu den zerbait izan da, Trebiñuko egoera bereziaren erakusle.

Baina anekdotetatik harago, elkartearen egunerokoan eragiten duten oztopoak ere izan ditugu. 2006ko Eusko Jaurlaritzaren Mapa Soziolinguistikoa ikustea besterik ez dugu. Arabaren bihotzean, betiko hutsunea. Badakigu ahanztura bat izango zela, baina askotan errepikatzen den ahanztura bilakatu da. 2012an Jaurlaritzak aparteko txosten bat egin zuen Trebiñuko Inkesta Soziolinguistikoari eskainia. Orain, 2017an, berriro ere gutaz ahaztu dira. Berriz ere gogorazi beharko diegu. Halaber, urte bereko uztailean, Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriko Euskararen Elkargoak euskararen sustapenerako hitzarmena sinatu dute, baina Trebiñu aipatu ere ez.

Ezin dugu ahaztu Trebiñun bizi den egoera politiko-administratiboak euskarari ez diola batere laguntzen, eta adibide argiena Trebiñuko eskola publikoa da. Eskola honetan Gaztela eta Leongo heziketa ereduak erabiltzen da, eta horretan euskara ez da existitzen. Gaur egun euskaraz ikasi nahi duten umeei Gasteizera joatera behartuta daude. Argantzonen ikastola pribatu bat dago, sei urte arteko haurrei bakarrik zuzendua.

Bestalde, diru laguntzen auzia dugu. Trebiñu Burgos izanik, Arabako Foru Aldundiaren laguntza izan da gure diru iturri ia bakarra. Baina laguntza honen bete-beharrak ez dira Trebiñuko salbuespen egoerara egokitzen. Epeak, kopuruak eta kudeaketa orokorra ezinezkoak dira guretzako. Eta horrelako oztopoak gurea bezalako elkarte txikiak suntsitzen ari dira.

Eusko Jaurlaritzarekin ere antzeko zerbait gertatu zaigu, proiektu txikiak omen direlako gureak. Tratu berezia behar dugu, egoera berezia delako.

Gauzak horrela, hiltorian gaude. Urte batzuk daramatzagu diru laguntzarik gabe. Txangoak, bertsoak, bazkariren bat eta Gabonetan jai txiki bat egiten dugu, baina ilusio gutxirekin, nahiko erretxinduta baikaude.

Eskerrak gazte belaunaldi berri bat gogotsu datorren gure erreleboa hartzeko prest. Grina handiarekin hasi dira, gu hasi ginen bezala. Ea bide errazagoa topatzen duten.

Aukera hau ez genuke galdu nahi euskararen alde lan egiten duten beste eragileen egoera aipatu gabe.

2003an hasi zen Argantzongo Ikastola haurrekin lanean. Eta Gaztela eta Leonen administraziopean izanda, ikastola honek oraindik bizirik irauteak badu mirakulutik zerbait. Euskal erakundeek zerrendetan ez da agertzen, ez da itunpeko zentroa. Ez ditu Erkidegoko zentroek dituzten zerbitzuak, arretak, baliabideak, azpiegiturak, laguntza pedagogikoak, laguntza ekonomikoak, eta abar. Ikastola sortu zenetik etengabe eskean aritu dira. Eta hori, lagunak, oso nekagarria da. Eskale kroniko bihurtu gaituzte, amnesia jota, Trebiñurekin momentu konkretuetan soilik gogoratzen direnek. Trebiñu ez da Araba. Eta ez dakigu ofizialki noizbait izango den. Bitartean, arreta berezia eta berezitua ez bazaio eskaintzen, oso-oso zaila izango du euskarak bere bidea egitea. Egoeraren adierazle, Trebiñuko Ikastolak hanka bat Trebiñutik kanpo duela. Ikastolak aurrera jarraitu ahal izateko, sortzear duten erai-kin berria Araba ofizialean kokatu behar izan dute.

Txingoka elkarteko lagunak ahotsoa ere ekarri nahi genuen. Txingoka elkartea Ikastolako guraso talde batek sortu zuen, aisialdiko giroan haurrei euskarazko ekin-tzak eskaintzeko asmoarekin. Udaleku euskaldunak eta musika eskola izan dira zutabe nagusiak.

Gutxisolo edo Ikastolarekin gertatzen den bezala, laguntza eskasiak lana hirukoizten du, eta etengabeko arriskuan geratzen dira euskararen alde diharduten saia-kerak.

Azkenik, zenbait ideia nabarmendu nahi nituzke:

Lehenik eta behin, gogoratu dezagun Trebiñun euskara EZ dela ofiziala. Beraz, hori da administrazioaren esparrutik eragiteko abiapuntua eta muga nabarmenena. Borondate politikoak eta sozialak bermatzen dute euskararen presentzia lausoa Trebiñun, baina borondateak bere mugak ditu.

Legea ororen gaintik dagoen garai hauetan, hizkuntza gutxitu baten ofizialtasunik ezak hizkuntza gaitasunari, erabilerari eta sozializazioari muga zurrunik ezartzen dizkio. Administrazio barruko lanean eragitea ezinezkoa da, eta kanpora begirako esparrua da egiteko bakarra, betiere herritarren borondate mota anitzak aintzat harturik.

Ondo dago bi edo lau urtean behin euskalgintzaren edo euskal kulturaren makroekintzak Trebiñuz edo Zuberoaz gogoratzea eta keinuak egitea. Baina Trebiñun euskara 365 egunez hitz egiten da, astelehenetik igandera.



ARABAKO HEA (HELDUEN EUSKALDUNTZE ALFABETATZE): GURUTZE-BIDETIK BIDE GURUTZERA?

Jose Miguel Reguero
GASTEIZKO IKAKo arduraduna

Lehenik eta behin, argitu behar dut Gasteizko IKAKo arduraduna banaiz ere, herri ekimeneko Arabako euskaltegi guztien izenean edo haien ordezkari gisa mintzatuko natzaizuela, eta Arabako euskaltegiok biziki eskertuta gaudela gonbidatzeagatik. Izan ere, helduen euskalduntze/alfabetatzearen sektorea, bere lana eta eragina alboratuak, baztertuak eta baita atzenduak ere izan ohi dira mota honetako analisi-ekitaldietan.

Iñaki Prusilla Gasteizko Udalaren Euskara zinegotziak gogorarazi digu Zaramagako semea dela (langile etorkinen Gasteizko auzo bat) eta euskaldunak ez ziren bere gurasoei esker euskaldundu zela, ikastola batean matrikulatu zutelako. Ni ere Zaramagako semea naiz, nire gurasoak berrogeita hamarrek hamarkadan Extremaduratik etorriak dira, hogeita hiru urterekin hasi nintzen ikasten euskaltegi batean, euskaltegian ibilitako ia euskaldun batekin ezkondu nintzen, eta bi seme-alaba euskaldun osoren aita naiz. Hortik abiatuko naiz, esateko, azken hogeita hamar urteotan, HABEk 1986az geroztik bildutako datuen arabera, nik egin nuen bezala, batez beste, sei mila ikaslek eman dutela izena Arabako euskaltegietan, urtero-urtero. Sei milak Araban, eta, horietatik, bost milak Gasteizen. Pentsa ezazu: Araban inork eta ezerk gutxi bil dezake urtero-urtero horrelako jende kopurua; Baskoniak eta Alavesek, agian, baina ez konpromiso maila berarekin (euskaltegira ia egunero etorri behar baita).

Datuak berebiziko garrantzia dauka, zeren euskaltegietan euskalduntutako milaka arabar horiek beste milaka pertsona euskaldundu dituzte transmisio bidez. Hala islatzen dute datuek. Esaterako, Unesco fundazioak, ama-hizkuntzaren eguna dela-eta, VI. Inkesta Soziolinguistikoa oinarriturik emandako datuen arabera, honako datu hauek nabarmendu zituen:

- Hiztun berrien %64k egiten dute euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz berdintsu seme-alabekin, eta %61ek testuinguru erdaldunetan.
- 27-37 urte bitarteko hiztun berrien %74k (haur txikien gurasoak) beti edo gehienetan euskaraz edo bietan berdintsu egiten dute seme-alabekin.
- Guraso biak euskaldunak direnean eta lehen hizkuntza euskara bietako batek bakarrik duenean, %95ek transmititzen dute euskara.

- Guraso biak hiztun berriak direnean, %80k transmititzen dute euskara.
- Guraso bakar bat euskalduna eta hiztun berria denean, %49k euskara eta erdara transmititzen dute.

Datu horiek, seguruen, zehatzago azalduko ditu Agurtzane Ortiz de Landaluzek bere artikuluan, baina argi dago helduen euskalduntze/alfabetatzearen sektoreak euskararen biziberritzean izan duen garrantzia eta transmisioan duen eragina.

Bestalde, gaur egun, Araban, garrantzi eta eragin horiek ez dira apaldu. 2015-2016an (2016-2017ko daturik oraindik ez daukagu) 5.616 pertsonak eman zuten izena Arabako euskaltegietan, eta, horietatik, 4.817k Gasteizen, indartsu dirauen mugimendua den seinale.

Ikasle kopuruak azken urteotan zertxobait egin du behera; baina, gure ustez, koiuntura-arazoengatik apaldu da. Batetik, arrazoi ekonomikoengatik: ezin dugu ahaztu oso krisialdi luzea pasatu dugula, eta, krisialdi guztietan gertatzen den bezala, krisialdiaren lehendabiziko urteetan, jendeak, nolabait, bere burua prestatzen inbertitzen du dirua, eta euskaltegiatiko matrikulazioak gora egiten du. Baina krisiak irauten badu, prestakuntza-gastuak ez dira ezinbestekoak, eta hortik murrizten dira gastuak. Bestetik, arrazoi demografikoak ere badira. Lehengoan bezala, Agurtzane Ortiz de Landaluzek egindako ekarpenean topatuko dituzue azalpen zehatzagoak eta teknikoagoak, baina kontuan hartu behar dugu *baby boom*-eko belaunaldia adinean aurrera doala eta, momentuz, ikasteari uzten diola eta jaiotze tasaren apaltzearekin batera gazte gutxiago dagoela.

Horretaz gain, ikasle tipologia aldatu da, baina hori, berez, ez da alderdi negatiboa. Gaur egun, batez ere arrazoi instrumental-pragmatikoek bultzatzen dituzte ikasleak ikastera. Horrek zer esan nahi du? Horrek esan nahi du bestelako motibazioak zituzten ikasleek edo ikasle posible horiek jada, nolabait, ase edo bete dituztela beren beharrak, hau da, horietako asko euskaldundu direla, eta ez dutela euskaltegien beharrik.

Bestelako kasuetan, gainera, 80ko hamarkadan ez bezala, ikasleak maila bat hartuta datozkigu euskaltegiatara, eta ikasturte gutxiago ematen dituzte euskaltegietan edota modulu arinagoak aukeratzen dituzte. Eta hori, berez, pozgarria da, zeren euskaltegiok Gobernu Kanpoko Erakunde batzuen antzekoak gara: daukagun helburu edo misio nagusia da noizbait desagertzea, hau da, gizartean gure beharrik inork ez izatea.

Baina, datozen urteetan edo hamarkadetan, Araban behintzat, ez dugu uste hala-korik gertatuko denik. Izan ere, Araban, oraindik ere, %62,4 erdaldun elebakarrak dira (Gasteizen, %63,8); eta, gazteen artean ere, ezagutza-mailan sekulako aurrerakada izan badugu ere, Bigarren Hezkuntzan ia-ia %43k A ereduan ikasten dute, batez ere Lanbide Heziketan, eta B ereduan %20k. Horren harira gogoratu behar da B eredu mota asko daudela eta, askotan, A eredu indartua besterik ez dela. Gauzak horrela, garbi dago etorkizunean gaur egungo gazteek ere izango dutela euskaltegien beharra.

Bestalde, lehen, matrikulazio maila apaltzeko zergati gisa aipatu dut *baby boom*-eko belaunaldia adinean aurrera doala, baina aukera gisa ere berriro aipatu beharko dut orain, zeren laster erretiroa hartzen hasiko da, eta gaur egungo *erretiratuak* ez dira *erretiratzen*, beste erronka batzuei ekiten diete, eta guk uste dugu euskalduntzea izango dela erronka horietako bat.

Eta, hirugarrenik, azken bolada honetan, mundu zabaletik datorkigun jendea daukagu, eta datozen urteetan gero eta gehiago izango direlako zantzuak badira. Horiengana ere heldu beharra dago; horiengana heldu nahi dugu, eta euskarara ekarri. Horretarako, ziur aski, funtsezkoa da azken bolada honetan erakundeak ere kontuan hartzen hasi diren kontzeptu bat: doakotasuna. Etorikin bati esaten badiozu gaztelaniaz ikastea dohainik dela eta euskaraz ikasteko, agian, 1.000 euro pagatu behar direla urtean, bada, ez du zipitzik ere ulertuko. Orain arte erakundeek darabilten *doakotasun*-sistemarekin arazo hori ez da konpontzen, ikasleek dirua aurreratu behar dutelako eta emaitzen arabera gerora berreskuratu. Beraz, erakundeekin batera pentsatu beharko dugu moduren bat eragozpen handi hori saihesteko. Areago, zenbait erakunderekin, Arabako Foru Aldundiarekin, esaterako, konponbideak topatzen ahalgintzen ari gara, jada; eta, zorionez, uste dugu doakotasunaren gaia bideratzen hasia dagoela.

Esan bezala, datozen urteotan helduen euskalduntze/alfabetatzearen sektorean badugu lanik, eta Araban luzaro edukiko dugula aurreikus daiteke. Horrek esan nahi al du gure sektoreak ez daukala arazorik? Bada, ez. Gu ere gurutze-bide izan daitezkeen beste bidegurutze batean ari gara, baina irakasleen kontura. Gure irakasleak, gaur egun, profesional onak dira, esperientzia handikoak, asko, ziur aski, militante gisa hasitakoak baina beren burua janzten jakin dutenak eta garai berrietara egokitzten asmatu dutenak, bai didaktikoki, bai teknologikoki; baina adinean gora doaz, eta %60 berrogei urtetik gorakoak dira, eta, horietatik, ia-ia %40 berrogeita hamar urtetik gorakoak, laster erretiratzeko direnak.

Erraza, pentsatuko dute batzuek: gazte prestu eta prestatuak hartu eta kito! Ez da horren erraza, baina. Gure sektorea ez da batere erakargarria jende gaztearentzat; gogoratu behar da goi mailako tituludunak izan behar dutela gure sektorean aritzeko, eta bai gure lan-baldintzak, bai gure soldata sektore publikokoak baino zatiz kaskarragoak direla. Horri, gainera, gehitu behar zaio gure finantzazio-sistema ere nahiko urria eta badaezpadakoa dela. Eta, hori konpondu ezean, nekez erakarriko dugu bestelako aukerak dituen jendea. Beste era batez esanda, nork aukeratuko du euskalduntze/alfabetatzearen sektorean lan egitea, soldata erdian eta lan-baldintza askoz ere eskasagoetan, irakaskuntza publikoan datozen urteetan oposizio erraldoiak egongo direla espero badu?

Eta, azkenik, azaldu beharko dugu euskalduntze/alfabetatze sektoreak erabileran izan duen eragina. Iñaki Lazkanoren testuan idatzita dago, hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi zirela gau-eskolak eta laurogeiko hamarkadan euskaltegiak. Garai hartan, Araba basamortua zen, euskararentzat eremu ia hutsa; eta, garai hartan, Araban antolatzen ziren euskarazko ekitaldi eta ekimen gehienak euskaltegien antolatzen zituzten. Hau da, euskaltegiok ginen kale erabileraren sustatzaile ia bakarrak. Zorionez, horretan aurrera egin dugu: erakunde publikoek eta herri-ekimeneko erakundeek, ez behar beste, baina bakoitzak bere eskaintza eratu dute, ziur aski, gu baino askoz hobeto edo modu sistematikoago eta eraginkorragoan. Orain, gure lana da gure ikasleak elkarte eta erakunde horiek antolatzen dituzten ekimenetara bideratzea. Horrek ez du esan nahi, ordea, erabilera areagotzeko euskaltegien ekarpena hutsa denik, zeren garai batean, gaur egun eta segitzen dugun bitartean, gure helburua da erabiltzaile potentzialen kopurua handitzea. Laburbilduz, Araban, euskaltegien lana funtsezkoa izan da euskararen erabileraren emendatze-prozesuan, izaten jarraitzen

du eta hala izaten jarraituko du: masa kritikoa eratuko duten hiztun berriak sortzeko eta familia bidezko transmisio maila areagotzeko. Gure lana eraginkorra izaten jarraitzeko, baina, ezinbestekoa da euskara ikasteak ikasi nahi duenari zama ekonomikorik ez ekartzea eta lan baldintzak irakaskuntza publikoko langileenei hurbiltzen lagunduko duen finantzazio-sistema duin eta egonkorra ezartzea.

ARABAN, EUSKARA LANABES

Rober Gutiérrez
Bai Euskarari Elkartearen zuzendaria

Lanabes — *Arabian Euskara Lanean* izeneko proiektuaren jatorria eta orain arteko garapena azalduko ditugu ondoko lerrootan. Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea, sustatzea, handitzea eta bitartekoak zein ereduak eskaintzea dira Lanabes proiektuaren helburu nagusiak.

2015eko irailaren 23an egin zen, Gasteizen, *Arabian Euskara Lanean* izeneko hausnarketa saioa¹, Arabako enprekin euskarak alor sozioekonomikoan duen egoeraren azterketa partekatu eta euskaraz lanean ari diren erakundeen praktikak, premiak eta balorazioak jasotzeko. Hortik abiatuta, proposamenak jaso eta egitasmoaren gutxieneko helburuak adostu ziren hurrengo hiru urteetarako.

Abiapuntua Lazarraga Sarien² 2014ko edizioan kokatu behar da. Bi urtez behin antolatzen diren sari hauen bitartez, Arabako Lurralde Historikoan (eta Trebiñuko Konderrian) arlo sozioekonomikoan euskararen ezagutza, erabilera eta presentzia areagotzeko norbanakoek zein entitateek egindako lan eskerga aitortzen dute Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkartek. Horrela bada, hizkuntzaren biziberritzearen arloan egindako lana gizarteratzen da, ereduak identifikatzen dira eta hizkuntzaren prestigio soziala areagotzea lortzen da.

Lazarraga sarietako 2014ko edizioko zenbait epaimahaikideren eta zenbait sari-uren arteko solasaldi baten ondoren sortu zen egitasmoa garatzeko ideia. Hasieratik, talde eragile bat eratu zen prozesua lideratzeko. Bertan, Arabako izaera desberdineko entitateak ari dira parte hartzen (administrazioa, enpresak, euskara sustatzen duten erakundeak, hezkuntzarekin lotutakoak, etab.) Arabako alor sozioekonomikoan eragiteko, euskara txertatzeko eta bere presentzia handitzeko helburu partekatuarekin: Arabako Foru Aldundia, SEA — Arabako Enpresariak, Arabako Merkataritza eta

¹ <https://lanabes.eus/world-kafea/>

² Arabako Foru Aldundiak eta Bai Euskarari Elkartek 2010etik elkarlanean sortutako eta kudeatutako sariketa. Hauek izan dira orain arteko saridunak:

2010: Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa, JEZ Sistemas Ferroviarios, Skunk Funk, Launa upategia eta Kepa Mendia.

2012: Cuadrabus, Gometegui, Assa Ikastola, Villa Lucía eta Abel Enbeita.

2014: Besa upategia, Electra Vitoria, Oreka IT, Agirre Lekue farmazia eta Aner Garmendia.

2016: Adigrafik, Etxeko Baratza, Lautada Bizirik, Ciudad Jardín LHII eta Txema Pascual.

Industria Ganbera, Aenkomer — Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak, Electra Vitoria, Oreka It, Laneki eta Bai Euskarari Elkarteak.

2015eko martxoaren 3In talde eragileak egin zuen lehenengo bileraren aktan haxe jaso zen, hitzez hitz: «Garrantzitsua da enpresen arteko sarea sortzen hastea, energia positibo handia dago, egitasmo baikorra da, ilusioa sumatzen da. Elkargune bat sortzea lehentasunezkoa izan daiteke, Araban euskaraz lan egiten dutenak biltzeko, diagnostiko bat egiteko, praktika onak trukatzeko, euskararen ezagutza eta erabilera baloratzeko eta, horretarako, Arabako Foru Aldundia aliatu moduan izatea ere lagungarri izan daiteke».

Jardunaldi batekin hastea proposatu zen, «estrategia diseinatzeko, hausnarketa egiteko eta datozen urteetarako bidea eta lehentasunak ezartzeko. Komunitatea ikus-tarazteko plataforma bat sortzea» ere proposatu zen.

Maiatzaren 6an, talde eragilearen bigarren bileran nabarmendu zen «Arabako enpresa munduan eragitea dela helburu nagusia, eta horretarako talde eragile honek lideratu behar duela prozesua. Egoeraren azterketa partekatu nahi da enpresa gehi-gorekin eta, hortik abiatuta, hiru urteko eperako gutxieneko helburuak adostu».

Baina, zeintzuk ziren lehentasunez gonbidatu beharrekoak? Araban gero eta enpresa gehiago ari da euskara euren eguneroko kudeaketan barneratzen, bezeroekiko zein hornitzaileekiko harremanetan erabiltzen, hizkuntza paisaian, barrura eta kanpora begira. Arabako erakunde eta enpresa asko ere jauzia egiten ari dira, euskara gero eta espazio handiagoa betetzen ari da. Aldaketak ari dira ematen, eta, pixkanaka bada ere, euskara sustatzeko eta erabiltzeko ekar ditzakeen onurez ari dira jabetzen enpresak, merkataritza eta ostalaritzako establezimenduak eta bestelako entitateak. Hor daude, esate baterako, euskara plana duten edo Bai Euskarari Ziurtagiria³ zein Bikain agiria⁴ duten enpresak. Lehentasunez, entitate horien datuak biltzea adosten da, ikusarazteko Araban euskaraz lanean modu batean edo bestean ari diren enpresek kopuru esanguratsua osatzen dutela, zeresana duten enpresen eta entitateen sarea ehuntzeko. Hurrengo urratsa izan zen datu-baseko 150 enpresak gonbidatzea jardunaldi ireki batera.

World coffee moduko bat antolatzea adostu zen, zehatzago ezagutzera eman dadin «enpresa horiek *Arabian Euskara Lanera* ekartzerakoan dituzten kezkak, premiak eta aurreikuspenak hiru urtera begira zein diren. *World coffee* hori ondorio eta iritzi kualitatiboak jasotzeko baliatu behar da, edukia landu behar da, galdera egokiak behar dira, ondo bideratzea. Galdera horiek enpresetan euskara lan mundura ekartzeko tenperatura emango digute».

Irailaren 23an egin zen hausnarketa saioan parte hartu zuten Arabako 30 enpre-setako⁵ ordezkariak adostutako galdera hauen inguruan aritu ziren lanean:

- I. Abiapuntua: bakoitzaren enpresatik abiatuta, zer egiten da enpresan euskara sustatzeko (lanean ari diren pertsonen begira eta kanpora begira)? Nola egi-ten da?

³ <http://baieuskarari.eus/eu/ziurtagiridunak>

⁴ <https://www.euskalit.net/bikain/eus/reconocimientos.php?id=2>

⁵ Arabako Foru Aldundia, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera, Artepan, Bai&By, Bai Euskarari Elkarteak, EGAMASTER, EGIBIDE, Ekaia eko-gestion, El Corte Inglés, Electra Vitoria, HAZI, Humedal Informatik, IES ZARA OBE BHI, Ikaslan Araba, JEZ Sistemas Ferroviarios, LAB, LANEKI, Mondragon Lingua, Muebles Pozo, Oreka IT, SEA — Arabako Enpresariak, VESA...

2. Egiten denaz, norberaren balorazioa.
3. Aurrera begirako proposamenak.

Saioa nagusiki euskaraz izan zen, gaztelaniaz aritu zen lantalde bat egon bazen ere, erabaki baitzen hizkuntza muga ez izatea hizkuntzaren gainean hitz egiteko.

Saioaren ondorio-txostenean proposatu ziren neurri orokorrak bideragarritzat jo zituen talde eragileak. «Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea eta handitzea helburu izango duen plan bat egitea adosten da, hurrengo lau urtetan edo garatu ahal izateko. Planaren helburuak zehaztu ahal izateko aurrekontua eta eragile bakoitzaren ekarpena zein den jakin beharra dago. Azkenik, talde eragilearen funtzionamendua eraginkorra izan dadin, funtzioak, ekarpenak edo dedikazio maila zehaztea proposatzen da».

Eduki horrekin, hiru urtera begirako plan proposamen bat adostu zen, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia txertatzea/ handitzea eta euskara sustatzea helburu duena. Horretarako hiru ildo adostu ziren:

1. «Arabako Euskara Lanean» ekimena gidatu duen taldeari segimendua eta zabalkundea ematea.
2. Arabako sektore sozioekonomikoa euskararen erabileraz sentsibilizatzea. Komunikazioa.
3. Era guztietako entitateak eta pertsonak inplikatzea, Arabako alor sozioekonomikoan euskararen presentzia handitzeko.

Arabako Foru Aldundiak bere esku dauden baliabideak jartzeko konpromisoa agertu zuen, Euskararen Foru Zerbitzua horretara ere jarrita, eta, 2016tik aurrera, bere urteko aurrekontuetan partida bat aurreikusita.

2016an, planaren garapenarekin batera, Lanabes⁶ marka sortu zen. «Araba lurrari lotutako lurraldea da. Nekazaritza sektoreak indar handia du, baina baita industriak eta zerbitzuek ere. Lurra, euskara eta lana irudikatu nahi izan ditugu marka-irudian eta izenean, etorkizunerako begirada bat emanez».



2016ko ekainean Lanabes proiektua aurkeztu zen Arabako gizartearen aurreran. Ekitaldian Igone Martínez de Luna Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak⁷ nabarmendu zuen orain arte hezkuntzan jarri izan direla indarrak, baina lan-mundua euskalduntzeari ere erreparatu behar zaiola, gizartea eleaniztuna izan dadin: «oso

⁶ Proiektuaren webgunea: <https://lanabes.eus/> | Lanabes — Araban Euskara Lanean ekimena-
ren aurkezpena: <https://youtu.be/LSzpDDIDrEg>

⁷ <https://lanabes.eus/lan-mundua-euskalduntzen-indarra-jarri/>

garrantzitsua da konturatzea hezkuntza eta lana ardatz garrantzitsuak izango direla Araban eleaniztasunari dagokion kolorea emateko. Bien arteko harremana landu beharko da eta oraintxe da unea horri heltzeko. Harrobia dago, lanabesak behar dira, ordea, harrobia lan-mundura eramateko». Batzeaz ari gara, gehitzeaz, hazteaz: «gizartearen eraketak berak zein merkatuen bilakaerak eleaniztasuna eskatzen dute, hizkuntza ugaritan harremanak izatea eskatzen dute. Lanabes da honen adibidea, bertan elkartu gara erakunde publiko zein pribatuak, elkarteak zein federazioak, izaera askotarikoak, helburu bakarrarekin, arlo sozioekonomikoan euskararen presentzia areagotzea». Gizartearen bilakaerari erantzuteaz ari gara, gero eta herritar elebidun gehiago dituen herriak euskaraz aritzeko aukerak bermatu behar ditu, edozein delarik ere esparrua.

Pilar García de Salazar Arabako diputatu nagusiordeak ere hartu zuen hitza aurkezpenean. Lehiakorra izango bada, lan-munduak berrikuntza nahitaez behar duela azpimarratu zuen, eta gaineratu zuen «berrikuntza bezala aldarrikatu eta indarrean jarri» nahi duela Araban ere hizkuntza kudeaketa egokia garatzea, bai enpresetan eta baita Lanbide Heziketan ere. «Gure enpresak lehiakorrak dira, izan daitezela lehiakorrak egiten duten hizkuntza kudeaketa ere. Berrikuntzaz ari gara, balio erantsiaz ari gara, bizikidetzaz ari gara, aukera berdintasunaz ari gara, eredugarritasunaz ari gara, lankidetzaz ari gara».

Aurkezpen horretan bertan, Aitor Otaolak SEAko zuzendariordeak honakoa adierazi zuen: «lan arloan ere normaldu egin behar da hizkuntzaren egoera, eta zaila izan arren, horixe da lortu nahi duguna; zeregin horretan, enpresek eurek hartu behar dute erabakia beren borondatez, eta enpresetako jendeak ere horrela nahi izanda hartu behar du parte».

Lanabes — *Arabian Euskara Lanean* proiektuak erakusten du denon inplikazioa behar dela lan mundua euskalduntzeko ezinbestekoak diren neurriak erabaki eta eraginkortasunez aplikatzeko. Hastapenetik, lehentasunak eta proposamenak adosten eta garatzen ari dira, kasu batzuetan bakoitzak bere eremuan lantzekoak eta beste batzuetan lankidetzan bideratzekoak. Euskararen presentzia txertatzeko eta handitzeko helburu partekatuarekin ari gara erakunde guztiak lanean, elkarri aitortuz bakoitzak duen garrantzia, elkar babesten, osagarritasuna bilatzen eta guztion arteko elkarlana bideratzen.

Argi dugu etorkizuna euskaraz ere pentsatu eta eraiki behar dela. Lurraldearen eta pertsonen ongizatea hizkuntzekin ere lotu behar da, euskararekin lotu behar da. Araban euskaraz lan egitea, ekitea, sortzea, berritzea, saltzea eta erostea, egunerokoan euskaraz normaltasun osoz aritzea posiblea bada, arabarron ongizatea handiagoa izango baita. Hori aintzat harturik, egin dezagun lan datozen urteotan gure lurraldearen alor sozioekonomikoan ere baldintza sozial, politiko, juridiko eta ekonomiko egokiagoak izateko. Aritu gaitezen elkarlanean, elkarri aitortuz esparru honetan bakoitzak duen garrantzia, elkar babestuz. Partekatu dezagun ikuspegi estrategikoa. Euskararen sustapena prozesu kolektiboa da... prozesu honek partekatua izan behar du, eta, kasu horretan, eremu sozioekonomikoko eragile guztiek beren ekarpena egin behar dute. Lanabes proiektuan horrela ari da gertatzen, eta aurrera begirako erronka nagusiak zehaztu dira:

- Zabaldu dezagun Lanabesen sarea eragile gehiagorengana.
- Egin dezagun hitzarmen bat enpresa, administrazio eta hezkuntza munduko eragileen artean lan praktikak euskaraz bideratzeko.

- Landu eta partekatu ditzagun enpresei eta ikastetxei zuzendutako baliabideak eta horiek erabiltzeko prozedurak eta gidak⁸.
- Lan egin dezagun enpresa gehiagorekin, metodologia erraz eta bideragarrien bitartez⁹, ereduak, erraztasunak eta baliabideak¹⁰ eskainiz, horietan ere euskararen presentzia handiagoa izan dadin.
- Sustapen lana areagotu beharko dugu, sentsibilizazioa lantzeri begira.
- Baliatu ditzagun ereduak¹¹ (Lazarraga Sariak, ziurtagiridunak, etab.) Arabako beste enpresa batzuei adierazteko zer/ nola egin daitekeen euskaraz lan egiteko eta bezeroak euskaraz hartzeko... Biderik eraginkorrena praktika bera da.
- Egin dezagun euskara beharrezko. Horra hor beste erronka bat aurrera begira. Gaur egun euskarak alor sozioekonomikoan duen balioa nahiko mugatua da, baina posible da euskararen balioa handitzea.
- Praktikarekin eta eredugarritasunarekin zerikusia duen beste erronka bat: Administrazioaren zerbitzu-kontratazio eta esleipen mota guztietan hizkuntza irizpideak ezartzea eta aplikatzea, euskarari bere balioa aitortuz sail guztietan.

Goian aipatutako neurri hauek eta beste hainbat proposamen, *Lanabes — Araban Euskara Lanean* egitasmoaren barruan jasota daude. Araban oinarria ezarri dugu Lanabes proiektuaren bidez eta bere talde eragilearen gidaritzapean. Orain guztioi dago-kigu horri egoki erantzutea, gure lurraldeari eta gure ongizateari ekarpena egingo badiegu. Segi dezagun, bada, etorkizuna irudikatzen eta marko horretara iristeko bidea egiten. Euskaraz bizi eta euskaraz lan egin nahi duten pertsonak helburu.

⁸ <https://lanabes.eus/category/lanenpres/>

⁹ <https://lanabes.eus/10-enpresek-egin-dute-euskararen-pilotajea-arrakastaz/>

¹⁰ <https://lanabes.eus/baliabideak/>

¹¹ <https://lanabes.eus/baipraktikaegokia-enpresan-euskaraz-ongi-jarduteko/>



4. EUSKARAZKO HEDABIDEEN GARRANTZIA



KONPLIZITATEA, KONPROMISOA, LAGUNTZA

Alberto Barandiaran

Kazetaria

Maiz galdetu diot nire buruari Arabak eta Nafarroak euskararekiko izan duten eboluzioaren bide dibergentearen arrazoiak zein diren. Arabak, duela 30-40 urte, ez zeuzkan, objektiboki, Nafarroak baino baldintza hobeak euskararen normalizazioari begira baikorra izateko. Beste modu batera esanda: Arabako euskaltzaleak ez ziren Nafarroakoak baino gehiago; ez zeuden hobeto antolatuta; ez zegoen testuinguru politiko edo soziolinguistiko egokiagoa. Araban, oro har, hizkuntzak oso presentzia urria zeukan herrialdearen parte handiengan, eskuina hegemonikoa zen, dinamismo euskaltzalea ere ez zen oso indartsua. Nafarroan, aldiz, askoz ere eremu zabalagoa hartzen zuen euskara bizirik zegoen lurraldeak; ezkerreko mugimendua bizia eta askotarikoa zen; bazen euskararen aldeko tradizio bat, eta ez bakarrik iparraldean edo eremu euskaldunenetan: baita hiriburuan ere, herrialdearen bihotz politiko, ekonomiko eta sozialean. Nafarroak askoz gehiago zeukan alde euskararen normalizazioaren esparruan urratsak egiteko.

Errealitatea da denbora honetan Araban euskarak bide luzeagoa egin duela. Gehiago aldararazi dituela demokraziaren hasieran egoera murrizten zuten adierazleak. Ireki dira langa batzuk, gainditu dira hainbat hesi. Dinamismoa badago, aldeko jarrera begi-bistakoa ere bai. Nafarroan, horixe duzu kezkarik handiena: inkesta soziolinguistikoa egiten denetik lehen aldiz, gehiago dira euskara sustatzearen aurka daudenak alde daudenak baino. Sekulako zama da edozein normalizazio prozesurako. Berunezko etsipena sortzen du, datuei bakarrik begiratuz gero.

Nago joera dibergente honek normalizazioaren arlo guztiak ukitu dituela, baita hedabideena ere. Nafarroan krisi handia bizi izan zuten euskarazko komunikabideek UPNren gobernuak laguntzak izoztu eta, ondoren, ezabatu zituenengan. Produktuak desagertu ziren, eta iraun zuten proiektuak hezurretaraino argaldu ziren; kontrako politika sutsuak indartsuenak ere jarri zituen kolokan. Erasoaldiak soberarik gabe harrapatu zituen hedabideak: ez gaitasunik ez giharririk eusteko eta bide berriak bilatzeko.

Lauro gobernuarekin laguntzak berreskuratu eta franko goititu direnean, arnasa hartu bakarrik ez, sustatzaileek erakutsi dute ideiak eta proiektuak badituztela aldeko haizea topatuz gero, eta ikus-entzunezkoaren esparruan emaitza esanguratsuak bistaratu dira *Xaloa Telebistarekin* eta *Hamaika Telebistaren* hedapenaren bidez.

Errotutako proiektuek, berriz, arnasa hartu ahal izan dute: *Euskalerrria Irratia*, *Tiipi-ttapa* edo *Guaixe*, tradizio luzeen dutenak bakarrik aipatzearren. Hori gutxi ez eta sortu dira asmo berriak, Ultzamako aldizkaria bezala. Baina oraindik sentsazioa dago falta dela estrategia bateratua, sustatu litezkeen proiektu komunengatik adostasuna lortzeko. Sentsazioa dago balizko gobernu aldaketa batek balantza berriro oker leza-keela, eta asko gainera.

Arabian, kolore bateko edo besteko gobernuak ez bide dute dinamika eten, eta esanguratsua da bertan gertatu direla azken urteotako berritasunak. *Alea* izan zen, krisi ekonomikoaren garai beltzenera, jaio zen proiektu esanguratsuenetako bat, herrialde osorako argitalpena, *Berriak* eta *Goienak* elkar hartuta; hor dugu ere *Aiaraldearen* bizkortzea, edo *Hala Bedi 2* euskarako irratiaeren proiektua.

EREMU DIGITALA, BIGARREN AUKERA

Notizia ona zein den? Esan litekeela Araban, Nafarroan edo gainerako lurralde eta eskualde guztietan bidea hasi besterik ez dela egin hedabide gehienentzat, ia hutsetik abiatzea delako erronka digitalari heltzea. Ia bigarren aukera bat bezala. Horregatik, oso garrantzitsua da ezagutzea oraintxe, une honetan, saretik datorren kontsumoa nolakoa den, ze ezaugarri dituen, nolako kontsumitzaileak dauden atzean, zer nahi duten. Horretarako datuak behar dira, eta datu horiek interpretatzen eta ikertzen lagunduko duten adituak.

Euskal hedabide gehienak biltzen dituen Hekimen elkarteak Hekimen Analytics izeneko neurgailua dauka 2016tik. Horko datuei begiratuta, ez dago zalantzarik iraultza geratzeko iritsi dela. Gaur egun, kontsumoa sarean dago inon baino gehiago, bereziki mugikorretan. Azken bost urteotan, hamar aldiz handiagoa da mugikorraren bidez hedabideetara iristen diren hartzaileren kopurua: 2013ko maiatzean, 138.000 bisita izan zituzten euskal hedabideek sakelakoaren bidez; bost urte geroago, 1.250.000 dira. Igoera hedabide guztietan eman da, batzuetan besteetan baino bizkorrago, sarerako egiten den apustuaren arabera, baina orokorra da joera. Arabako hedabideen kasuan, esaterako, *Aleak* bikoiztu egin du azken bi urteotan mugikorretik aldizkaria kontsumitzen dutenen kopurua; *Aiaraldean* bezalatsu.

Galdera erraz sortzen da: pantaila bidezko kontsumo hau kontsumo konbentzionala ordezkatzeko ari da? Trasea gertatzen ari da paper, sukaldeko irratia eta egongelako kutxaren bidez .eus hedabideetara? Hartzailere gehiago dituzte euskal hedabideek orain, gero eta digitalagoak direnean? Berdinak dira, gutxiago?

Hain zuzen ere funtsezko galdera honen inguruan artikulu interesgarria argitaratu zuten, 2016ko amaieran, Josu Amezaga EHUKo NOR ikerketa taldeko irakasleak eta Gorka Salces Errota Digitaleko elkarteko kideak, Euskal Hedabideen urtekarian. Bi helburu aitortu zituzten gaiari heltzerakoan: alde batetik, gaur egun euskarazko komunikabideek lortzen duten hedadura zein den erakustea; bestetik, azken urteetan izan diren bilakaera eta aldaketa nagusi batzuk aztertzea. Horretarako, bereziki bi inkesta hartu zituzten aintzat: CIES enpresak erregulartasunez egin ohi dituen neurketak, eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) 2015ean enkargatu zuen audientzia neurketa zabalak.

Ondorioetan, bi ikerlariak nabarmendu zuten alde handiegiak daudela bi neurketen artean kopuruak erabat fidagarritzat jotzeko. Beraz, horrelako inkestak joera

orokorrak antzemateko bai, baina haien gainean erabaki garrantzitsuak hartzeko ez zutela balio azpimarratu zuten. Kontsumoari dagokionez, oro har, euskarazko komunikabide tradizionalak euskaldungoaren erdiarengana iristen direla ondorioztatu zuten Amezagak eta Salcesek. Kontsumo hori txikiagoa da gazteen artean eta produktu bakarrera mugatu ohi da. Hauskorra da, beraz. Nolanahi ere, azken urteotan igo egin dela izan zen ikerketaren beste ondorioetako bat. Duela zortzi urte, Hego Euskal Herriko I4 urtetik gorako populazioaren %15ak irakurri, entzun edo ikusten zuen, egunero, euskarazko komunikabideren bat. 2015ean, %19k. Datu horiek Hizkuntzen Kale Erabilerak eta Inkesta Soziolinguistikoak ematen duten erabilera orokorraren datuak hobetzen zituztela ondorioztatu zuten ikerlariek. «Zentzu honetan esan daiteke oraindik irabazi beharreko eremu ugari dagoen arren, komunikabide horiek lan handia egiten ari direla euskaldunak euskarazko eremu publikoan integratzeko».

BERRIRO PENTSATU BEHARRA DAGO

Hartzailearen nolabaiteko konfiantzaren babesa baldin badago, eta datuek hori erakusten badute, derrigorrezkoa da hartzaileak nahi duenari begira jarri eta estrategia berezi bat garatzea sakelakoarentzat: diseinu egokia, material berariazkoa, norabide argia. Horrek esan nahi du pantailatxoari eta pantailatxotik egin behar dela begiratu. Horrek eskatzen du proiektua berriro diseinatu, berriro pentsatu, berriro asmatzea.

Berriki, Carme Junyent hizkuntzalari katalanak esan du, *Argia* aldizkariari emandako elkarrizketa batean, ezaxolatiak aktibatzea dela gaur egun, gure mendebaldearen izkina honetan, gakoa. Horiek direla hizkuntzak salbatzen edo hiltzen dituztenak. «Indiferenteak aktibatzea da beharrezko. Erratekoz, beti izanen da %15 bat hizkuntzaren militantez osatua, bertze %15 bat kontrarioz, eta %70, zatirik handiena, indiferentez osatua. Bada, %70 hori landu behar da. Militanteak hor dira beti, kontrarioekin ez da egitekorik, indiferenteak dira giltza». Bada, euskal hedabideak kontsumitzen ez dituztenak indiferentziatik atera eta gurera erakartzeko, horixe, erakarmena landu behar dugu, besteak beste.

Ttap aldizkaria aurkeztu dute uda honetan. Proiektua interesgarria da hainbat arrazoiengatik. Hasteko, sarean kontsumitzeko sortutako proiektu bat da. Ez da «baita sarerako ere» produktu bat, baizik eta sarean sortu, bizi eta hilko den hedabide bat. Bestetik, gazteentzat pentsatua dago, edo, hobeto esanda, paperarekin lotu ez direnentzat, edo atxikimendu hori ez dutenentzat. Azkenik, eta seguru asko garrantzitsuena, hainbat hedabideren arteko proiektu bat da: *Goiena*, *Anboto* eta *Baleike* batu dira aldizkariaren ingurura. Eskualdeko produktuak, produktu estandar nazional bat egiteko. Tokikomen eta Kataluniako *Esguarden* laguntza ez da nolana hikoia, baina garrantzitsua da esparru berria irabazteko norbere esparrutik ateratzea erabaki dutela hedabide horiek.

Erroka digitala horrela irabaziko delakoan nago. Batuta, norbere proiektutik abiatuta proiektu komunak, batuak, indartsuak sortuz.

Horrek eskatzen ditu konpromisoak, laguntzak, konplizitateak. Eskatzen du arriskatzea, interes orokorrari ere begiratzea. Eskatzen du laguntza eta sustengu instituzionala, asko dagoelako jokoan: hedabideak diren hizkuntzaren erresonantzia kuxkak benetan aktiboak eta eraginkorrak izatea.

Datorren garaia oso interesgarria izango da. Ekimen publikoa dago, inoiz baino batuago, bide berriak bultzatzeko; hedabideen ekimena ez da makaldu, nahiz eta oso urte gogorak pasa dituen; hartzailearen erantzuna ere ez da gutxiestekoa, haiei esker iraun dutelako Euskal Herri luze zabalean barreiatu diren produktuek. Elkarren arteko bultzada ez da, beharbada, bide bakarra izango, baina bai interesgarriena eta epe ertainean emaitza begi-bistakoak eman ditzakeena.

AURRERA BEGIRAKO AUKERAK

Aritz Martínez de Luna
ALEA komunikazio taldeko koordinatzailea

Ezin ukatu azken urteetan euskarak gure lurraldean izan duen bilakaera positibo denik. Jagon Jardunaldietan ezagututako esperientzia eta egitasmoek euskarak Araban bizi duen egoeraren argazki orokorra ezagutzeko aukera eskaini digute, eta irakurketa positiboan izan da kasu gehienetatik eratorritakoa. Administrazioak, eragile ezberdinek edota kasu askotan norbanakoek egin duten lan nekaezinari esker, euskara erabili edota euskara ulertzeko gaitasuna duten herritarren kopuruak nabarmen egin du gora. Ezbairik gabe, albiste pozgarria da honakoa, eta etorkizuneko jomugak zehazten laguntzeko oinarri sendoa eskaintzen du.

Halere, arriskutsua litzateke zentzu horretan autokonplazentziaz jokatzeko, eta argi izan behar dugu ibilbide luze baten abiapuntuan besterik ez gaudela momentuz. Erabilera datuak dira horren erakusle: %4 inguruko maila batean besterik ez gabiltzala onartu, eta horretan eragiteko beharrezko neurriak hartzea da esku artean dugun erronka. Oraindik ere, asko dugu egiteko, eta inoiz baino gogo gehiagoz eutsi beharko genioke parez pare dugun aukerari.

Ibilbide horretan elkarren laguntza ezinbesteko izango dugu. Helburu zehatz eta egingarriak adostek, eta estrategia partekatu bat izateak, urrats txikiak ematen joateko aukera eskainiko digu. Gaur egun ordea, bakoitzak bere bideari begiratzen dio kasu gehienetan, eta normalean joera horrek norberaren ahuleziak azalean uzteko besterik ez du balio.

Estrategia bateratuak aldiz, indarrak batu eta emaitza positiboak lortzeko aukera emango liguke. Hori bai, benetan fruituak jaso nahi izatekotan, ezin gara beti abiapuntuan kokatu eta maila teorikoan eztabaidatzen jardun. Praktikan zentratu behar ditugu gure esfortzuak, eta hortik hasiko gara gizartearen aldaketak sustatzen.

Hain zuzen ere, Arabako Alea bezalako proiektuak zentzu horretan eragiteko asmoz sortutako egitasmoak dira. Prentsa kontsumitzeko orduan hizkuntza ohiturak aldatzea bilatzen dugu, eta horretarako euskarri erakargarriak sortzen asmatu beharra dugu derrigor. Bide horretatik izango baitugu eragina hizkuntzaren normalizazioan, hedabideoi dagokigun arloan bederen.

Herritarrei egunerokoan euskara erabili ahal izateko bitartekoak eskaintzea da gure jomuga, eta hori lortu ahal izateko lanean dihardugu. Tamalez, euskalgintzak

bizi dituen gabeziak (edo baliabide urritasunak) gutxi ez eta kazetaritza munduak bizi duen krisialdia ere pairatu beharrean aurkitzen gara euskal hedabideak.

Gure burua malabarista moduan ikusten dugula onartzen dugu inongo lotsarik gabe. Eguneroko jardunean, lantaldeko edozein kidek edozer gauza egiteko gaitasuna erakutsi beharra dauka: erredakzio lana, maketatzailerik edo diseinugile funtzioak, argazki eta bideogintza, IKT-en erabilera... lantaldearen konpromiso maila alturik ezean, nekez egingo luke aurrera izaera honetako proiektu batek.

Eskura ditugun baliabideak ondo erabiltzen asmatu, eta gure txikitasunetik, aurrera begira konplexurik gabe jarduten ikasi beharra dugu. Egungo ahuleziak, abagune bezala ikusi eta egitura zurrunagoek baliatu ezin dezaketenez jokatzea da euskal hedabide txikien parada. Egiten dugun lanean sinetsi eta argitaratutako edukiak balioan jartzeak emango dizkigu gizartearen aitortza eta babesia.

Egungo gizartean, erdaraz argitaratutako hedabide handiak dira sektoreko erreferente. Komunikabide xumeagoi aitortzen ez zaigun kalitatea aurreraposatzen zaie, eta argitaratzen dituzten edukiek sinesgarritasun maila altua izan ohi dute herritarren artean.

Gizartean dauden aurreiritzi eta uste horiek apurtzen asmatzea da, hein handi batean, eman beharreko lehen urratsa.

Euskal hedabideak diru-laguntzetatik bizi garela entzutea ohikoa izaten da, eta sektore honetan gabiltzanoei min ematen digula esatera ausartuko nintzateke. Gizartean hedatua dagoen ustea da honakoa, eta laguntzarik gabe etorkizunik izango ez genukeela pentsatzen du gehiago zabal batek.

Egia da hainbat laguntza jasotzen ditugula euskarazko hedabide gehienok, hain zuzen ere, administrazio publikoaren euskararen normalizaziorako planetan jasota dagoenarekin bat egiten dugulako neurri handi batean. Gizarteari beharrezkoak zaizkion komunikazio euskarriak eskaintzen dizkiogu, eta euskal hedabiderik gabe, nekez legoke horrelakorik. Hortaz, apustu horri eusteko laguntza jasotzea zilegi dela onartu beharko genuke.

Egoera parekoa izan liteke beste ekonomi jarduera askotan ere: sektore estrategikoak izanagatik, lurraldeko langileei lanpostua eskaintzen dieten enpresa handiak izanagatik, edota, kirolean gertatzen den bezala, masa sozial bat atzetik izanagatik. Kasu horietan ordea, inor gutxik jartzen du zalantzan laguntza publikoen erabilera, hobarri fiskalak ezartzea edota kirol azpiegitura inbertsioetan dirua xahutzea. Arlo batzuetan eta besteetan mugitzen den diruak ez dauka alderik.

Neurri handi batean, gizarteak barneratutako sineskera horiek puskatzeko lana egin beharko dugu etorkizunean, eta espero dezagun laguntzarik behar izango ez duguneko momentua ikusiko dugula egunen batean. Finantzaketa iturri propioak areagotu eta egindako lanari etekin ekonomikoa ateratzen asmatzea besterik ez dugu, hots, gizartearen babesia izan beharko da etorkizuneko gure sostengua.

Hiru aldagai erabakigarri izango dira ibilbide horretan giltzarri: inplikazioa, lankidetzeta eta gertutasuna.

Euskalgintzako edozein arlotan diharduten eragileak herritarren inplikazio eta konpromisoan oinarritu dira, hein handi batean, urteetan zehar. Militantzia eta konbentzimendu horiek izan dira baldintza ahulei aurre egin eta proiektuak aurrera atera ahal izateko kemena erakutsi dutenak. Egoera parekoa bizi dugu euskal hedabideok ere. Herrigintzatik sortutako egitasmoak gara gutako gehienak, euskara-elkarte edota

herri mugimendu ezberdinen ilusioagatik martxan jarri eta aurrera egitea lortzen ari garenak.

Inplikazio maila hori, ALEA bezalako proiektuen inguruan kokatzen diren eragile eta norbanakoei zinez aitortzea dagokigu, beraiek eskainitako laguntzarik ezean ezinezko litzateke izaera honetako proiektua aurrera ateratzea. Maila ezberdin ugarritan nabaritzen da ekarpen hori, eta zein baino zein garrantzitsuagoa izan (eta izango) da: euskalgintzako beste elkarte eta eragileekin garatzen dugun lankidetzak, administrazioko ordezkari eta teknikariek solaskidetzarako eskaintzen diguten aukera, hainbat arlotan kolaboratzeko prest agertzen diren herritarren sarea, beste hedabide batzuekin edukiak eta ezagutzak partekatzeke espazioak, enpresa eta negozioak iragartzeko ALEA aukeratzen duten entitateak edota harpidedunen multzoa, besteak beste.

Kanpotik jasotako laguntza horren garrantziaren jakitun bagara ere, ALEA bezalako proiektu batek benetan aurrera egingo badu, proiektuaren gidaritzak eta lana aurrera ateratzeko erabat murgilduta dagoen taldea badagoela ezin ahaztu dezakegu. Bezeroei zor diegun kalitatezko eskaintza eman ahal izateko, ezinbestekoa da proiektuari enpresa izaera lehiakor eta profesionala aitortzea.

Zenbait kasutan, bi kasuistika horien arteko dikotomia sortzen da, eta egoera hori kudeatzeko zailtasunak gaindituz, ez da beti lan erraza izaten proiektuaren onerako erabakiak hartzen asmatzea. Hedabideok kritiko izaten ikasi beharra dugu ezinbestean; inguruko laguntza eskertu (eta bilatu) bai, baina beti denon atseginekoak izango ez garela barneratuta.

Normala denez, norberak bere interesak defendatzeko hautua egingo du, ezinezkoa litzateke beti eskutik hartuta joatea, baina ez gaitu inora eramango norberak bere abestia bakarrik jotzen tematzeak. Lankidetzarako bideak partekatzen ditugun interesetan oinarritzea beste aukerarik ez dugu. Betiere, euskalgintzan dihardugun eragileon interes nagusia zein den ahaztu gabe.

Hedabide bat garen heinean, kazetaritzak lanari dagokion informazio iturri izatea zor diegu gure irakurleari. Araban eginiko, eta arabarrontzat eginiko, hedabidea izateko helburuarekin sortu zen ALEA. Gure lurraldean gertatzen diren arazo, kezka, albiste eta gizarte mugimendu guztien erakusleho izan nahi dugu, eta zentzu positiboan esanda, beste hedabide askotan inoiz azalduko ez diren gai «marjinal» ere hitza emango dien bozgorailu lana egiteko prest gaude. Euskara oinarri hartuta, herrialdea bera informatiboki kohesionatuko duen proiektua aurrera eraman nahi dugu.

Proiektu parte-hartzaile, ireki eta askotarikoa izateko helburuarekin jaiotako hedabidea garelako argi izanda, gure jomuga da euskararen komunitateak gure kanalak erabili ditzala. Horrenbestez, jendearen interesa erakarri eta bertako prentsan erreferente bilakatu ahal izateko, erakargarriak diren edukiak eskaini beharko dizkiogu irakurleari.

Zentzu horretan, galbahe lana egiten asmatu beharra dugu derrigor, eta zenbait kasutan ezezkoa ematen ere ikasi beharko dugu. Bide horretatik bakarrik lortuko dugu herritarren aitortza, eta, ondorioz, gure hizkuntzaren erabilera mailan hedapena.

Publikoa da gure izateko arrazoia eta horrek bermatuko digu biziraupena. Hortaz, urruti ez dugun etorkizun horretara begiratzen hasita, gizartearen gertatzen ari

diren aldaketei erantzuna ematen asmatu beharko dugu ezinbestean. Informazio iturrien areagotzeak, edukien demokratizazioak, komunikazio kanalen ugaritzeak eta teknologia berrien erabilerak, parez-pare mundu berri bat zabaltzen digu hedabideoi.

Aldaketa horien guztien aurrean, tokiko euskal hedabideok badugu beste askok ez duten abantaila bat: gertutasuna. Herritik sortutako medioak gara, inguruan gertatzen denaren berri bertatik bertara ezagutzeko aukera daukagu, eta gainera, gure orbitan kokatzen diren norbanako eta eragile guztien konplizitatea lortzen badugu, beste askok eskura izango ez duten altxorra izango dugu. Hain zuzen ere, ezberdin egiten gaituena baliatuko dugu, gainontzekoengandik bereizi eta merkatuan gure tokia egiteko. Konplexuak gainera kendu, eta herritarrak gurera erakartzeko garaia iritsi da.



